

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

11472 10/2021 Legea, uztailaren 9koa, Urrutiko Lanarena.

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala:

ZIOEN AZALPENA

I

Urrutiko lana, hau da, enpresaren ohiko establezimendu eta zentroetatik kanpo egiten den lana —telelana teknologia berriak baliatuz zerbitzuak ematea eskatzen duen haren azpiespezia da—, arautu egin da, bai Espainiaren barruan, bai Europan eta nazioartean ere.

Europako eremuan, Europako Sindikatuen Konfederazioak (ESK), Europako Industria Konfederazioen eta Enpresarien Batasunak (UNICE), Artisautzaren eta Enpresa Txiki eta Ertainen Europar Batasunak (UNICE/UEAPME) eta Enpresa Publikoaren Europako Zentroak (CEEP) Telelanari buruzko Europako Esparru Akordioa sinatu zuten 2002an. Akordio hori Europako solaskide sozialek sinatu zuten 2002ko uztailan, eta 2009an berrikusi zen, Europar Batasunean besteren konturako telelangileei segurtasun handiagoa emateko. Akordio horren arabera, urrutiko lanaren modalitate hori zerbitzu publikoetako enpresentzako eta erakundeentzako lanaren antolaketa modernizatzeko eta langileei beren zereginak egiteko autonomia handiagoa emateko bitartekoa da.

Akordioaren helburua zen Europa mailan telelangileen lan-baldintzei buruzko esparru orokor bat eratzea, eta haientzat eta enpresentzat komunak diren malgutasun- eta segurtasun-beharrak bateragarri egitea. Akordioak urrutiko langileei ematen die enpresako lokaletan diharduten langileen babes orokor bera.

Akordio horretan, telelana informazioaren teknologiak erabiliz lana antolatzeko edo lan egiteko modu gisa definitzen da, kontratu edo lan-harreman baten esparruan, non enpresaren lokaletan ere egin zitekeen lana horietatik kanpo egiten den normalean.

Akordioan funtsezko zenbait eremu nabarmentzen dira, eta horietan telelanaren berezitasunak kontuan hartu behar dira. Zehazki, akordio horrek bereziki aipatzen du telelanaren borondatezko izaera; telelangileen eta enpresaren establezimenduan jarduten duten pertsonen arteko eskubide-berdintasuna, eta horri dagokionez berariaz aipatzen du prestakuntzarako eta karrera profesionalerako eskubidea, edo eskubide kolektiboak erabat baliatzeko eskubidea; ekipamenduen hornidura; segurtasuna eta osasuna, gaiari buruzko Europako araudiaren aplikazio osoa eta dagokion enpresa-erantzukizuna zehaztuta, eta telelangileak egiten duen lanaren antolaketaren kudeaketa, aplikatu beharreko legeriaren eta hitzarmen kolektiboen esparruan.

Era berean, Lanaren Nazioarteko Erakundeak etxetiko lana arautu zuen 177. hitzarmenean eta 184. gomendioan, modalitate hori langilearen etxean edo berak aukeratutako beste lokal batean (enpresaren lantokiez bestelakoa) egiten denean gertatzen dela ulertuta, ordainsari baten truke, eta produktu bat egiteko edo zerbitzu bat emateko enpresaren zehaztapenei jarraituz.

Espainiako barne-araudiaren esparruan, Lan-merkatua erreformatzeko premiazko neurriei buruzko uztailaren 6ko 3/2012 Legeak etxetiko lan tradizionalaren antolamendua aldatu zuen, teknologia berrien erabilera intentsiboan oinarritutako urrutiko lanari tokia egiteko. Lege horren zioen azalpenak aitortzen zuenez, telelana lana antolatzeko modu berezi bat da, ekoizpen- eta ekonomia-ereduari bikain egokitzen zaiona; izan ere, malgutasuna ematen die enpresei lana antolatzeko garaian, enplegu-aukerak handitzen ditu, eta optimizatu egiten du lan-denboraren eta bizitza pertsonalaren zein familia-bizitzaren arteko lotura. Aldaketa horren arabera, urrutiko lana urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 13. artikuluan dago definituta; honela definituta, hain zuzen ere: «urrutiko lana deritzo langileak lana nagusiki bere etxean edo berak askatasunez aukeratutako tokian egiteari, enpresaren lantokian modu presentzialean egin ordez».

Gainera, urrutiko lana funtsezkoa da biztanleria landa-ingurunean kokatzen eta bertan finka dadin laguntzeko, 2019ko martxoaren 29an Ministro Kontseiluak onetsitako Erronka Demografikoari aurre egiteko Estrategia Nazionalaren Gidalerro Orokorretan adierazten den bezala. Arau honek balio behar du posible egiteko gaur egun dagoen despopulazioaren arazoari konponbidea emateko, gainbehera demografikoa jasaten duten lurraldeen ezaugarriak aintzat hartuta; landa-eremuak, urrunekoak eta udalerrri txikiak dira lurralde horiek.

Langileen Estatutuaren 13. artikulua ez da nahikoa telelanaren berezitasunetan aplikatzeko; izan ere, telelanak, enpresaren lokaletatik kanpo garatzen den lan-prestazioa izateaz gainera, informatika- eta komunikazio-teknologia berrien erabilera intentsiboa eskatzen du.

Bestalde, martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretuak, Enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko premiazko neurriei buruzkoak, Langileen Estatutuaren 34.8 artikulua aldatu zuen, eta horrela eginez, Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko (EB) 2019/1158 Zuzentarauaren edukari aurrea hartu zion. Zuzentzarau hori gurasoen eta zaintzaileen familia-bizitza eta lan-bizitza bateragarri egiteari buruzkoa da, eta Kontseiluaren 2010/18 EB Zuzentzaraua indargabetzen du. Indargabetutako zuzentzarau horrek benetako eskubidea ezartzen du lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko, lan-modu malguak erabiliz, urrutiko lanaren formulak barne.

Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, berariaz ezartzen da lehen aldiz eta nazioko, Europako eta nazioarteko jurisprudentzia jasota, lan-eremuan gailuak erabiltzearekin lotutako eskubide-multzo bat; besteak beste, intimitaterako eskubidea eta lan eremuan gailu digitalak erabiltzekoa, bai eta deskonexio digitalerako eskubidea ere.

COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 5. artikulua ezartzen du urrutiko lanak lehentasuna duela enpleguarekin lotutako beste neurri batzuen aurretik, eta enpresak neurri egokiak hartu beharko dituela, teknikoki eta zentzuz posible bada eta beharrezko egokitzapen-ahalegina proportzionala bada. Arau hori salbuespenezkoa eta indarraldi mugatukoa da.

II

Pandemiaren hedapenak eta hedapen hori geldiarazteko beharrezko neurriek modu malkartsuan aldatu dute bilakaera ekonomiko globala, eta beherakada nabarmenak gertatu dira jardueran eta enpleguan. Pandemia arindu arren, Barne Produktu Gordinaren (BPGd) beherakada nabarmena aurreikusten da; hazkunde tasa eta suspertzeko aukerak pandemiaren bilakaeraren beraren eta balizko berragerraldien arabera izango dira.

Espainiako ekonomiaren Barne Produktu Gordinak inoizko beherakadarik handiena izan du hiruhileko batetik bestera, eta krisiaren eragina bereziki nabarmena izan da enpleguan; izan ere, Gizarte Segurantzako afiliazioak asko murriztu dira eta aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteak asko erabili.

Baina, aurrekoaz gain, doikuntzaren zatirik handiena aldi baterako kontratua duten pertsonen kolektiboari dagokio, eta, horien barruan, langile gazteei.

Bai eragin geografikoa eta bai sektoriala oso heterogeneoak izan dira, eta eragin hori zerbitzuetan negatiboagoa izan da manufakturetan baino; izan ere, denboran egonkorra den datua da sektore horietan edo «gizarte-industria» deiturikoetan emakumeak eta 35 urtetik beherakoak gehiegi ordezkaturata daudela, ehuneko berrogeitik gora baitira.

2020. urteko maiatzaren hasieratik, pandemiaren kontrol handiagoko testuinguru batean, Deseskalatze Planaren pixkanakako implementazioak ekonomia pixkanaka suspertzea ekarri du, eta proiektio guztien arabera, 2020. urtean ekonomiaren uzkurdua oso nabarmena gertatuko da; ondoren, 2021. urtean, gorakada aipagarri bat etorriko da.

Nolanahi ere, ziurgabetasun handia dago oraindik ere, hauen mende dagoen ziurgabetasuna, hain zuzen: pandemiaren bilakaera, jarduerak nolabaiteko normaltasuna berreskuratzen duen eritimoa, ekoizpen-sarean sortu den kaltea eta hazkunde-potenziala.

Laburbilduz, Espainiako lan-eremuan planteatzen ziren erronkei (behin-behinekotasuneko tasak, soldata-pobreziaren arriskua, lan-prekaritatea eta segmentazio handia) erronka berriak gehitzen zaizkie, COVID-19aren ondoren globalizazio- eta digitalizazio-prozesuetan izango diren aldaketei aurre egitera behartzen dutenak, bai eta produktibitatea handitzeko formula eraginkorren erabilera ere, enpleguaren kalitatea handitu eta soldata-arrakalak eta arrakala profesionalak murriztuko dutenak.

Bestalde, osasun-krisiak agerian utzi du urrutiko lana mekanismo eraginkorrena dela pandemiak dirauen bitartean jarduerari eutsiko zaiola ziurtatzeko eta kutsaketen aurreko prebentzioa bermatzeko. Osasun-krisiak dirauen bitartean, urrutiko lanaren normalizaziorako joera indartu ez ezik —lehenagotik ere aurreratzen hasia zen joera hori—, haren erabilera lehentasunezko zatitza jotzera ere iritsi da.

Herrialde batzuetan, kopuruek argi eta garbi erakusten dute erabilera-hobespen hori: adibidez, Finlandian, pandemiaren garaian, telelanaren erabilera ehuneko hirurogeira iritsi zen. Era berean, Frantzia, Portugal edo Italian, urrutiko lanaren erabilera nolabaiteko derrigortasun- edo lehentasun-mailarekin konfiguratu zen pandemian zehar enpresek erabili dituzten beste jarduketamota batzuen aurrean. Eurofound-en «Living, working and COVID-19» inkestaren arabera, hamar langiletik ia lau (ehuneko hogeita hamazazpi) telelanean hasi ziren pandemiaren ondorioz (ehuneko hogeita hamar Espainian). Horren ondorioz, lan egindako orduen kopurua gutxiago murriztu da telelana proportzio handiagoan igo den herrialdeetan. Aurrekoaren antzera, CEPYMEk enpresa txiki eta ertainei egindako inkesta batean, telelana hartzen da koronabirusaren krisiari aurre egiteko neurri nagusizat, kasuen ehuneko berrogeita seitan.

Laburbilduz, komunikazioaren teknologiak funtsezko tresna izan dira birusaren hedapena geldiarazteko neurriek eta murrizketek ekoizpen-jardueran izan duten eragina arintzeko, eta horrek langileen eta enpresen alde egiten du; enpresa eraginkorrak eta espezializazio handikoak izatea ahalbidetzen du; landa-eremuen bizkortze ekonomikoa ahalbidetzen du, eta enplegu-aukerak areagotzen ditu.

Deskribatutako BPGd-aren uzkurte-egoerak, langabezia-tasak, pandemiaren bilakaerari buruzko ziurgabetasunak, Espainiako lan-merkatuaren egiturazko arrisku eta ahuleziei buruzko ziurgabetasun-faktore horien atzeraelikatadurak eta gure lan-antolamenduan aipatutako eskubide eta betebeharren babesak beharrezko egiten dute urrutiko lanaren erabilera modu ordenatuan, premiaz eta bermeekin sustatzea.

III

Urrutiko lana ohiko lantokitik kanpo, enpresaren zuzeneko kontrolik gabe eta sektore eta eremu geografiko oso zehatzei lotuta egiten den etxetiko lana dela dio definizio klasikoak; baina, orain, definizio hori aldatu egin da harreman-esparru berri baten aurrean gaudelako eta teknologia berrien inpaktua oso handia delako.

Gaur egun, etxetiko lana baino gehiago, urrunetik egiten den lan malguaz hitz egin behar dugu, lana ingurune berrietan —zeinetan lantokian langilearen presentzia ez baita beharrezko— egiteko aukera ematen duen lan malguaz, hain zuzen.

Lan-harremanen birtualizazio horrek leku eta denbora jakin batetik bereizten edo deslokalizatzen du langilea, eta horrek, zalantzarik gabe, abantaila nabarmenak dakartza berekin, besteak beste: malgutasun handiagoa egotea lanaldien eta atsedendaldien kudeaketan; batzuetan, autoantolaketa egiteko aukera gehiago egotea horrek dituen ondorio positiboekin, adibidez, bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko orduan; kostuak murriztea bulegoetan eta joan-etorrietako gastuetan aurrezteak; produktibitatea eta ordutegiak arrazionalizatzea; biztanleria lurraldean finkatzea, batez ere landa-eremuetan; enpleguaren konpromisoa eta esperientzia; talentua erakartzea eta atxikitzea edo absentismoa murriztea.

Telelanaren figura, urrutiko lan gisa, goraka ari da eta enpresa-antolaketa tradizionaletik urruntzen; horrek, zalantzarik gabe, praktika berriak eta malguagoak dakartza berekin, antolamendu-aldaketak sustatzen ditu enpresetan, bai eta langileen prestakuntza eta enplegarritasuna indartu ere. Era berean, horri esker, kutsadurak behera egiten du, ibilgailu pribatuaren joan-etorrien eta erabileraren kopuruak behera egiten duelako, eta, potentzialki, ondorio positiboak izango ditu berotegi-efektuko gasen isurketan, enpresen energia-kontsumoan efizientzia handiagoa lortzen baita.

Hala ere, eragozpen batzuk ere izan ditzake: datuen babesa; segurtasun-arrakalak; teknoestresa; ordutegi jarraitua; neke informatikoa; etengabeko konektibitate digitala; laneko isolamendu handiagoa; identitate korporatiboaren galera; urritasunak lan presentzian egiten duten pertsonen eta soilik urrutiko lana egiten dutenen arteko informazio-trukean; lurraldean oinarrituko zerbitzurik ez izateari lotutako zailtasunak, hala nola konektibitate digitala edo lana eta familia bateragarri egiteko zerbitzuak; edo langileari produkzio-jardueraren kostuak helaraztea inolako konpentsaziorik gabe, besteak beste.

Telelana pandemiaren hedapena geldiarazteko oraindik indarrean dauden murrizketa eta neurriei erantzuteko ezarri da gure herrialdean, ia araudi espezifikorik ez dagoen lege-testuinguru batean. Pandemiaren hedapena geldiarazteko eta hari galga jartzeko agintari eskudunek hartutako neurriak direla-eta orokor bihurtu da Espainian telelana, eta horrek enpresen eta langileen arteko eskubideen eta betebeharren nolabaiteko desoreka ekarri du. Arau bat behar da enpresaburuei eta langileei laguntzeko lanerako eskubideak duen babes-izaera errealitate berrira eramaten; izan ere, errealitate hori esponentzialki bizkortu da, sindikatuentzat, patronalentzat, enpresentzat, langileentzat eta Gobernuarentzat berarentzat aurreikusitako ezin diren inguruabar exogenoen ondorioz.

Azken batean, urrutiko lanaren hedapenak eta normalizazioak, beharrezko ziurtasunak eta bermeak ezartzea ahalbidetzen duen lege-esparru nahikorik gabe, lan-harremanen esparrua desitxuratu dezake; gainera, gure konstituzio- eta legegintza-esparruaren arabera (Espainiako Konstituzioaren 35. artikulua eta Langileen Estatutua) funtsezkoak diren baldintzei eragiten die, bai eta «gutxieneko gizarte-lurzoria» osatzen duten nazioarteko, erkidegoko eta nazioko arauen ondareari ere. Ondare horren barruan daude, besteak beste, Batzordearen 2017ko apirilaren 26ko (EB) 2017/761 Gomendioa, gizarte eskubideen Europako gizarte oinarriari buruzkoa, II. kapitulua; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko azaroaren 4ko 2003/88/EE Zuzentaraua, lan-denboraren antolamenduaren zenbait alderdiri buruzkoa; Europako Gizarte Gutuna, Turinen egina, 1961eko urriaren 18an, eta 1980ko apirilaren 29ko Tresnak berretsia; Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa; Kontseiluaren 89/391/EEE Esparru Zuzentaraua, 1989ko ekainaren 12koa, langileen lan-segurtasuna eta -osasuna hobetzeko neurriak aplikatzeari buruzkoa, eta Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina bera.

Azaldutako guztiaren ondorioz, Gobernuak Urrutiko Lanaren irailaren 22ko 28/2020 Errege Lege Dekretua onartu zuen, zeina, Diputatuen Kongresuak baliozkotu ondoren, lege-proiektu gisa izapidetu baita.

IV

Helburua da erregulazio nahikoa, zeharkakoa eta arau substantibo bakar batean integratua ematea zenbait premiari erantzuteko, hartara, alde batetik, orekatzen direla besteren konturako lana egiteko modu berri horien erabilera, eta enpresa eta langileentzat dakartzan abantailak, eta, bestetik, eskubide-esparru bat ematen dela, besteak beste, honako hauek aseko dituenak: borondatezko izaerari eta izaera itzulgarriari buruzko printzipioak; lan-baldintzetan tratu-berdintasunaren printzipioa, bereziki, ordainsaria —gastuen konpentsazioa barne—, lanbide-sustapena eta -prestakuntza, eskubide kolektiboen erabilera, gehieneko lan-denborak eta gutxieneko atsedeen-denborak, aukera-berdintasuna lurraldean, lan-denboraren banaketa malgua; bai eta neke fisiko eta mentalarekin, datuak bistartzeko pantailen erabilerarekin eta isolamenduaren arriskuarekin lotutako prebentzio-alderdiak ere.

Beharrezkoa da, horrenbestez, dagoen arau-hutsunea betetzea, eta, horretarako, tratamendu juridikoa berdindu behar da lana antolatzeke modu horren alderdi garrantzitsuetan; behar den neurrian, negoziazio kolektibora jo behar da, ezinbesteko tresnatzat jotzen baita sektore espezifiko bakoitzean aplikatu beharreko araudia osatzeko irizpide propioak ezarritik.

Arau hau, gainera, gizartearen adostasunaren emaitza da, partekatutako hausnarketa-eta eztabaida-prozesu luze baten emaitza; hiru hilabete baino gehiago igaro ondoren, prozesu horren amaieran, Urrutiko Lanari buruzko Akordioa (ULA) lortu da. Akordio horrek urrutiko lanaren erregulazioaren oreka egokia bermatzen du, eta, zalantzarik gabe, berekin ekarriko du lan-mota horrek denboran irautea, lan-eremuan eragina duten eta adostasunaren eskutik datozen aldaketa guztiakin gertatzen den bezala.

Oinarrizko araudi honek —zeina beharrezkotzat jotzen baita eta irismen orokorra baitu, edozein dela ere lanbide-sektorea—, bere ardatz gisa, gutxieneko hiru alderdi garatzen ditu. Alderdi horiek dagoeneko jasota daude telelanari buruzko Europako Esparru Akordioan, Europako arau-ondarean —besteak beste, gutxieneko segurtasun- eta osasun-baldintzei, lan-denborari eta lan-baldintzen aurreikusgarritasunari eta gardentasunari buruzko zuzentarauak— edo estatutu-ordenamenduan, zeina hura garatzen deneko esparru pertsonal eta materiala baita.

Lehenbizi, haren definizioa aldatu egin behar da, Langileen Estatutuaren 13. artikulua jasotzen duenetik urrundu baita, eta zehaztapenerako beharrezko osagaiak sartu.

Babes handiagoa aurreikusteko, garrantzitsua da prestazio-modu honen izaera erregularra, eta haren erabileran beharrezko malgutasuna bermatzea —enpresen eta langileen inguruabar eta interes desberdinetara egokituko baita—, bai eta kontzeptu zurrinak alde batera uztea ere, baina beharrezko segurtasun juridikoa emanda; izan ere, Langileen Estatutuaren 1.1 artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten lan-mota guztietan izango da aplikatzea.

Bigarrenik, borondatezkoa da langilearentzat eta enpresarentzat, eta idatzizko akordio batean jaso behar da. Akordio horretan, beharrezko informazio idatzi guztiak jaso behar dira —urrutiko lanetik eratorritako berezitasunak barne—, hain zuzen, funtsezko elementuen edukia argi eta gardentasunez bermatzea ahalbidetzen dutenak, nahiz eta lan-araudi orokorretik ondoriozta daitezkeenak izan.

Horrela, bada, lan-jarduera antolatzeke edo emateke modalitate hau ez dator enpresen zuzendaritza- eta antolaketa-ahalmenetatik, ezta lan-baldintzen funtsezko aldaketaren figuratik ere —Langileen Estatutuaren 41. artikulua—; aitzitik, borondatezko aukera bat da bi alderdientzat.

Arauk zenbait muga ezartzen ditu kasu zehatzei dagokienez; hala nola, adingabeei eta prestakuntza-kontratuei dagokienez. Lehenengo kasuan, kalteberatasunak, prestakuntza- eta atsedeen-beharrak eta antolatzeke modu espezifiko horrekin lotutako arriskuekiko sentikortasun berezia (neke fisikoa eta mentala, isolamendua, laneko segurtasun-arazoak eta jazarpena) direla-eta gomendagarria da kolektibo horrentzat gutxieneko presentzia ezartzen duten mugak ezartzea urrutiko lanaren akordioetan, indarrean dagoen araudiaren eskakizunen arabera: Langileen Estatutuaren 6.2 artikulua eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 27. artikulua.

Prestakuntza-kontratuei dagokienez, haien araubide juridikoko beste alderdi eta gorabehera batzuekin gertatzen den bezala, haien xedea betetzen dela bermatzeko behar diren zuhurtasunak eta mugak jaso behar dituzte, dela egindako ikasketa-mailari egokitutako praktika profesionala, dela kualifikazio profesionala lortzea, enpresak behar bezala eta behar adina gainbegiratuta.

Hirugarrenik, eta lan-baldintzei dagokienez, urrutiko lana egiten duten pertsonen enpresako lokaletan, halakorik badago, lan egiten duten pertsona konparagarriei aplika dakizkiekeen legeriak eta hitzarmen kolektiboek bermatutako eskubide berberak izango dituzte, eta antolaketa-modalitate horrek ez du inolako aldaketarik ekarriko langilearen estatus juridikoan, eta berez ez da izango justifikazio-arrazoia lan-baldintzak aldatzeko edo lan-harremana azkentzeko. Hala ere, urrutiko lanaren berezitasunak kontuan hartuta, alderdi osagarri batzuk jasotzen dira, babes-maila berari eusten zaiola bermatzeko beharrezkoak direnak, hain zuzen.

Horrela, hurrengo elementuak, besteak beste, funtsezko baldintzak dira, eta berariaz jaso behar dira estatutu-legeriari eta hitzarmen kolektibo aplikagarriei kalterik egin gabe: urrutiko lana egiteko beharrezkoak diren ekipamenduak eta bitartekoak entregatzea eta instalatzea; horiek erabiltzearekin eta mantentzearekin lotutako kostuak; prestakuntza-ekintza egokiak eta espezifikoak egitea; sarbidearen, tratuaren eta ezagutza puntualaren identitatea lanbide-sustapeneko aukeretan; kontrol- eta zaintza-bitartekoak instalatzea; segurtasun- eta osasun-neurriak behar bezala aplikatzea; lantokira sartzeko mugak, toki hori aldi berean langilearen etxebizitza denean; lan-denboraren antolaketa, malgutasuna, prestasun-aldiak eta erregistro egokia barne; lantoki batekiko beharrezkoa den lotura edukitzea, eta abar.

Apartatu honetan, intimitaterako eskubidearekin eta lan-eremuan gailu digitalak erabiltzearekin lotutako langileen eskubideak nabarmentzen dira, bai eta datuak babestearekin eta deskonexio digitalerako eskubidearekin lotutakoak ere, betiere Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamenduan (datu pertsonalen tratamenduari eta zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa) ezarritakoari jarraituz.

Halaber, beharrezkotzat jotzen da enpresari dagozkion kontrol- eta antolaketa-ahalmenak zehatz-mehatz ezartzea, honako hauek bermatzeko: entregatutako ekipamenduen erabilera eta kontserbazio egokia, ekipamenduen eta konexioen erabilera pertsonalerako mugak, langileak bere laneko betekizunak eta betebeharrak betetzea, eta enpresa balizko segurtasun-arrailetatik babesteko beharrezko jarraibideak.

Gainera, nabarmentzekoak diren beste alderdi batzuen artean, arreta handia jartzen zaio negoziazio kolektiboak urrutiko lanaren esparruan duen ezinbesteko eginkizunari, eta berariazko aipamenak egiten dira alderdi hauek zehazterakoan: urrutiko lanaren bidez egin daitezkeen zereginak eta jarduerak, modalitate horretan sartzeko lehentasun-irizpideak, itzulgarritasunaren erabilera, prestazio- eta antolaketa-modu horri lotutako eduki ekonomikoko eskubideak, akordioaren edukia eta baita urrutiko lanaren ehunekoak ere, lanbide-sektore espezifikoetan urrutiko lan erregularra zer den definitze aldera.

V

Bestalde, lege honen bidez ezinbesteko erreforma bat sartzen da; izan ere, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera —kotizazio gabeko prestazioa— aitortzeko prozedurak abian jartzeak agerian utzi du haren manuetako batzuk premiaz aldatu behar direla, ahalik eta pertsona gehienei ahalik eta denbora laburrenean estaldura emateko. Kotizazio gabeko prestazio hori Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretuak arautzen du.

Hala, testuaren idazketan hobekuntzak egiten dira, eta horrek eragin positiboa izan behar du prestaziorako irispidea bizkortzeko; izan ere, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren eskumenak areagotzen dira bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazio ekonomiko iragankorra ofizioz aitortzeko, bai eta errolda koordinatzeko basea

—Estatistikako Institutu Nazionalarena baita— gaitu ere, prestazioaren eskatzaileak emandako datuak harekin bat datozenean eskaerak berresteko. Ildo beretik, erroldatze-ziurtagiriak ez du eskatzailearen helbide berean erroldatutako pertsonen baimenik beharko, eta, aldi berean, aldeztu aurretiko onarpen-fase bat aurreikusten da, soil-soilik kalteberatasun ekonomikoko egoerari lotua. Eta aipamen berezi gisa esan enplegu-eskatzaile izateko eskakizuna ezabatzen dela eta hemendik aurrera onuradunen betebeharra izango dela, hargatik eragotzi gabe salbuespenak egon ahal izatea.

Bestalde, prestazioaren izapidetzea konplexua denez, eta babesa eskuratzeko aukera bermatze aldera, bigarren xedapen iragankorra aldatzen da bertan aurreikusitako atzeraeraginezko eragin-aldia luzatzeko. Hala, 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen aurkeztutako eskaeren kasuan, hala badagokio, prestazioa aitortu egingo da 2020ko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin.

COVID-19a geldiarazteko eta hari aurrea hartzeko egoera honetan, presakoa eta beharrezkoa da epidemia geldiaraztea eta haren hedapena eragozteko osasun publikoak babesteko, baita eduki ekonomikoko eta sozialeko neurriak hartzea ere, epidemiak herritarrengan eta bereziki kolektibo kalteberengan eragiten ari den ondorioei aurre egiteko. Arrazoibide horretan, ezinbestekotzat jotzen da arau honek biltzen dituen aldaketak egitea bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren araudian, helburu izanik prestazio hori aitortzeko prozeduraren bizkortasuna areagotzea, segurtasun juridikoa indartzea eta indarraldiko hilabeteetan atzemandako akatsak zuzentzea. Horrela eginez, kalteberatasun ekonomikoko egoera duten pertsonen eta bizikidetzak-unitateek prestazioa ahalik eta lasterren eskuratu ahal izatea lortuko baita.

VI

Lege honek lau kapitulu, hogeita bi artikulua, zortzi xedapen gehigarri, lau xedapen iragankor eta hamalau azken xedapen ditu, bai eta eranskin bat ere.

Urrutiko Lanari buruzko Akordiotik datoz arauaren kapitulu guztiak, bai eta lehenengo eta bigarren xedapen gehigarriak, lehenengo eta hirugarren xedapen iragankorrak eta azken xedapenetako lehenengoa (lehenengo apartatua), bigarrena eta hirugarrena ere.

Legearen I. kapituluan, xedapen orokorrei buruzkoa baita, bera aplikatuko den pertsona-eremua ezartzen da, honako hauek barne: Langileen Estatutuaren 1.1 artikuluan aurreikusitako baldintzak biltzen dituzten lan mota guztiak; urrutiko lanaren, telelanaren eta lan presentzialaren definizioak, lege honen ondorioetarako; mugak, eta tratu- eta aukeraberdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak. Horretaz gainera, printzipio horiek gauzatzeko alderdi zehatzak jasotzen ditu, lan-baldintzetan urrutiko lanak ekar ditzakeen berezitasunak kontuan hartuta.

Legearen II. kapitulua urrutiko lanari buruzko akordioaren eta horri lotutako betebeharrak formalen gainekoa da, eta honako hauek azpimarratzen ditu: borondatezkoa izango dela bi alderdientzat; gutxieneko edukia duen idatzizko akordio bat berariaz egingo dela hasieran, edo gerora; langilearen lan-estatusari ez diola eragingo; itzulgarritasuna baliatu ahal izango dela; akordioaren aldaketak adostu beharko direla, eta lan mota horretarako irispidearen inguruko lehentasunak antolatuko direla. Halaber, jasotzen du jarraitu beharreko prozeduran eta irizpideetan negoziazio kolektibora joko dela, eta genero-rolak betiketzea saihestu eta emakumeen eta gizonen arteko erantzunkidetasuna sustatu behar direla.

Legearen III. kapituluan, I. kapituluan aldarrikatutako eskubide-berdintasuna garatzen da, lan-eskubideei dagokienez kontuan hartu beharreko arreta bereziak aipatuz, hain zuzen, urrutiko lana egiten duten pertsonen loturik aintzat hartzekoak direnean, eta atal hauen inguruan egituratzen dira: karrera profesionalarekin lotutako eskubideak, baliabideak hornitu eta mantentzearekin eta gastuak ordaindu eta konpentsatzearekin lotutako eskubideak, lan-denboran eragina duten eskubideak, lan-arriskuen prebentziorako eskubidea, bitarteko digitalen erabilerarekin lotutako eskubideak eta urrutiko lana egiten duten pertsonen eskubide kolektiboak.

Legeak, IV. kapituluan, berariaz aipatzen ditu enpresak urrutiko lana antolatzeko, zuzentzeko eta kontrolatzeko dituen ahalmenak, horren barruan direla datuen babesaren eta informazioaren segurtasunaren gainekoak, langileak bere laneko betekizunak eta betebeharrak betetzearen gainekoak, eta gerta daitezkeen segurtasun-arrailetatik enpresa babesteko beharrezko jarraibideen gainekoak.

Lehenengo eta bigarren xedapen gehigarriak Urrutiko Lanari buruzko Akordiotik datoz, eta hurrenez hurren dagozkie negoziazio kolektiboan urrutiko lana jasotzeari eta administrazio publikoen zerbitzuko lan-kontratupeko langileen urrutiko lana arautzeari.

Hirugarren xedapen gehigarriak erreferentziako egoitza ezartzen du urrutiko lanaren zenbait ondorioetarako.

Laugarren xedapen gehigarriak lan-istripu batetik eratorritako kontingentzia profesionaltzat hartzen ditu osasun-zentroetan edo zentro soziosanitarioetan lan egiten duten langileek alarma-egoeran SARS-CoV2 birusaz kutsatua izatearen ondorioz hartutako gaixotasunak.

Bosgarren xedapen gehigarria Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileek, autonomia-erkidegoek eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalak aldi baterako ezintasunak kontrolatzeko eta haien jarraipena egiteko sinatzen dituzten lankidetzahitzarmenei buruzkoa da.

Seigarren xedapen gehigarriak «UEFA Women 's Champions League 2020» txapelketaren finalari aplikatu beharreko zerga-araubidea arautzen du, izan ere, berariazko zerga-araubidea zehaztu behar da UEFAk Bilbo eta Donostia aukeratu baitzituen «UEFA Women' s Champions League 2020» txapelketaren finala egiteko.

Bestalde, zazpigarren xedapen gehigarriaren bidez, 2020ko urriaren 31ra arte luzatzen da COVID-19ari aurre egiteko osasun-materialaren Europar Batasunaren barruko entregetan, inportazioetan eta eskurapenetan balio erantsiaren gaineko zergaren % 0ko tasa aplikatzeko erabakiaren indarraldia, hain zuzen, material horien hartzaileak entitate publikoak badira, irabazi-asmorik gabekoak, eta ospitaleak. Ekonomiaren eta enpleguaren aldeko premiazko neurri osagarrien apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuaren 8. artikulua 2020ko uztailaren 31ra arte aplikatuko zela arautzen zuen. Indarraldi hori luzatzen da pandemia kontrolatzeko bigarren fasean osasun-sistemaren erantzuna bermatzeko, normaltasun berriko aldia hasi ondoren. Halaber, eguneratu egiten da neurri hau aplikatu behar zaien ondasunen zerrenda, zeina jasota baitago lege honen eranskinean, eta eguneratze horrek eragina izango du 15/2020 Errege Lege Dekretua indarrean jarri zen egunetik. Ondorio horietarako, subjektu pasiboek, hala badagokio, eta zergaren araudiaren arabera, lege hau indarrean jarri aurretik jasanarazi edo ordaindutako balio erantsiaren gaineko zergaren zuzenketa egingo dute.

Urrutiko Lanari buruzko Akordiotik datorren lehenengo xedapen iragankorrak bi helburu ditu. Batetik, bermatu nahi da lege hau ezin izango dela erabili bera indarrean jarri aurretik urrutiko zerbitzuak ematen zituzten langileei aitortutako eskubideak murrizteko. Bestetik, bete nahi dira alde zuzen aurretik modalitate horren arabera ematen ziren lan-harremanak arautzearen arloko balizko hutsuneak.

Hirugarren xedapen iragankorrak, zeina Urrutiko Lanari buruzko Akordiotik baitator, urrutiko lanaren araubide iragankorra xedatzen du, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 5. artikulua aplikatzearen ondorioz salbuespenez hartutakoa baita.

Laugarren xedapen iragankorrak lege hau indarrean jarri aurretik abiarazitako eta ebazpen espresik eman ez den bizitzeko gutxieneko diru-sarrera aitortzeko prozedurei aplikatu beharreko araubidea ezartzen du.

Azken xedapenetako lehenengoaren lehen apartatuan, eta azken xedapenetako bigarrenaren eta hirugarrenaren, Urrutiko Lanari buruzko Akordioaren ondoriozko legealdaketak jasotzen dira.

Azken xedapenetako lehenengoaren lehen apartatuak abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Lan-arloko Arau-hauste eta zehapenei buruzko Legearen testu bateginak 7. artikulua 1. apartatuan dioena aldatzen du, Urrutiko Lanari buruzko Akordia formalizatzeko betebeharra ez betetzearen arloko arau-haustea zehazte aldera, legean edo aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan ezarritako

moduan eta baldintzetan. Azken xedapenetako lehenengoaren bigarren apartatuan, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Lan-arloko arau-hausteei eta zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 40. artikulua aldatzen da.

Azken xedapenetako bigarrenak prozedura judizial berezi bat ezartzen du Lan Arloko Jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legeari beste artikulua bat, 138 bis, gehituz, urrutiko lanerako irispén-eskubidearekin, itzulgarritasun-eskubidearekin eta aldatzeko eskubidearekin lotutako erreklamazioei aplikatzekoa izango zaiena.

Azken xedapenetako hirugarrenaren bitartez, Langileen Estatutuaren testuan txertatzen dira lege honetan xedatutakoarekin bat beharrezko diren aldaketak, hain zuzen, lege-arau horretako 13., 23.1 a) eta 37.8 artikuluetan.

Azken xedapenetako laugarrenak Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 54. artikulua aldatzen du zabalgarritzat jotako kredituen barruan sartzeko jardura uzteagatiko babes-sistemara bideratutakoak.

Azken xedapenetako bosgarrenak ziurtagiri elektronikokoak lortzeko nortasuna egiaztatzeari buruzko neurri bat jasotzen du, Sinadura Elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legea aldatuz. Ziurtagiri elektronikoko kualifikatuen eskatzaileak identifikatzeari dagokionez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko uztailaren 23ko 910/2014 (EB) Erregelamenduak, 24.1 d) artikuluan, egiaztapen hori nazio-mailan aitortutako beste identifikazio-metodo batzuk erabiliz egiteko aukera jasotzen du, presentzia fisikoaren pareko segurtasuna ematen dutenak fidagarritasunari dagokionez. Erregelamendu hori barne-merkatuko transakzio elektronikokoetarako identifikazio elektronikokoari eta konfiantzazko zerbitzuei buruzkoa da, eta 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen du. Ondorioz, metodo horiei aplikatzekoak zaizkien antolaketa- eta segurtasun-betekizun zorrotzak berariaz arautu behar dira gure zuzenbide nazionalan. Horretarako, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioari –konfiantzazko zerbitzu elektronikokoak arautzeko eskumena duen saila baita– esleitu behar zaio baldintza eta betekizun horiek zehazteko zeregina.

Bestalde, azken xedapenetako seigarrenak eta zazpigarrenak Jokoa arautzeko maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala sortzeko ekainaren 4ko 3/2013 Legearen aldaketa puntualari heltzen diote, hurrenez hurren. Ogasun Ministerioak jokoaren arloan esleituta zituen eskumenak Kontsumo Ministerioari esleitu zaizkio, Kontsumo Ministerioaren oinarrizko egitura organikoa garatzen duen eta urtarrilaren 28ko 139/2020 Errege Dekretua aldatzen duen apirilaren 28ko 495/2020 Errege Dekretuaren 2. eta 4. artikuluen arabera, salbu eta alderdi hauei dagokienez: zerga-arloko politika orokorra aztertzea eta definitzea; zerga-arabidea proposatzea, lantzea eta interpretatzea, eta jokoaren administrazio-kudeaketatik eratorritako tasak kudeatzea eta likidatzea, Ogasun Ministerioaren oinarrizko egitura organikoa garatzen duen eta urtarrilaren 28ko 139/2020 Errege Dekretua aldatzen duen uztailaren 21eko 689/2020 Errege Dekretuaren 2.1.f) artikuluan xedatutakoaren arabera. Aldatzen den urtarrilaren 28ko 139/2020 Errege Dekretuaren bidez, ministerio-sailen oinarrizko egitura organikoa ezartzen da. Horregatik, aldatu egin behar dira Jokoa arautzeko maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen lehenengo xedapen iragankorra eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala sortzeko ekainaren 4ko 3/2013 Legearen bigarren eta hamargarren xedapen gehigarriak, adierazte aldera Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren eskumena izango dela jokoaren administrazio-kudeaketatik eratorritako tasak kudeatzea eta biltzea.

Azken xedapenetako zortzigarrenak Trenbideen Sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legea aldatzen du, eta beste xedapen gehigarri bat, hogeita batgarrena, gehitzen du. Xedapen horrek ahalmena ematen dio Trenbide Segurtasuneko Estatu Agentziako zuzendariari, bere eskumenen esparruan eta zenbait baldintzaren pean, salbuespen espezifikoak eman ditzan, araudi nazionalari lotutako trenbide-segurtasun operazionalaren esparruan, ustekabeko egoerak edo premiazko operazio-beharrak gertatzen direnean. Horrela, suspertze mailakatu ekarriko duten ezohiko neurriak onartzen dira, kolapsoa saihesteko eta sektorean normaltasuna berreskuratzea ahalbidetzeko, COVID-19ak

eragindako larrialdi-egoeraren ondorioz hartutako ezohiko neurriein gertatu izan denaren antzera.

Azken xedapenetako bederatzigarrenean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen berariazko aldaketa bat jasotzen da, arau horren azken xedapenetako zazpigarrenaren aurreikuspenak indarrean jartzeko epea luzatzeko, arlo hauei dagokienez: ahalordetzeen erregistro elektronikoa, erregistro elektronikoa, enplegu publiko gaituen erregistroa, Administrazioaren irispide-puntu elektronikoa orokorra eta artxibo elektronikoa. Zaila izango denez beharrezkoak diren egokitze-prozesuak 2020ko urriaren 2a baino lehen amaitzea, hori baita egun ezarritako epea, 2021eko apirilaren 2ra arte luzatzen da epea, eta egun horretatik aurrera izango ditu ondorioak gai horiei buruz xedatutakoak.

Azken xedapenetako hamargarrenak aldatu egiten du Ekonomiaren arloan eta osasun publikoa babesteko presako neurri batzuk hartzen dituen martxoaren 10eko 6/2020 Errege Lege Dekretuaren bosgarren artikulua. COVID-19 birusaren ondorioz langileek bizilekua edo lantokia duten udalerriko irteeretan isolamendu-, kutsatze- edo murrizte-aldiak lan-istripuarekin parekatutako egoeratzat hartzeari buruzkoa da artikulua hori.

Azken xedapenetako hamaikagarrenak Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretuaren aldaketa jasotzen du.

Azken xedapenetako hamabigarrenak Ekonomiaren suspertzea eta enplegua bultzatzeko premiazko neurrien uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege Dekretuaren aldaketan du, automobil-parkea berritzeko ibilgailuak erosteko laguntzen programa, Renove Programa, arautzen duen zatian, jasangarritasun- eta gizarte-irizpideekin bat, eta helburu hauekin: ordainketa-prozedura argitzea, aurrekontu-arloan zenbait aldaketa egitea eta programa kudeatzen duen erakunde laguntzailea gaitzea onuradunei funtsak banatzeko.

Azken xedapenetako hamahirugarrenak eskumen-titulua ezartzen du, eta azken xedapenetako hamalagarrenari dagokio hura indarrean jartzeko data adieraztea.

VII

Arau honen bidez, aurrera egiten da Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren 8.5 helburua betetzeko, hau da, enplegu osoa eta produktiboa eta lan duina lortzeko emakume eta gizon guztientzat, gazteak eta desgaitasuna duten pertsonak barne, bai eta balio bereko lanagatiko ordainsari-berdintasuna lortzeko ere; eta, 2030 Agendaren 8.4 eta 11.6 helburuak betetzeko, ekoizpen eta kontsumo efizienteak arian-arian hobetzeari buruzkoa, hazkunde ekonomikoa eta ingurumenaren degradazioa bereizten saiatuz, eta hiriko biztanle bakoitzaren ingurumen-inpaktu negatiboa murrizteari buruzkoa.

Lege honek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 129. artikuluan jasotzen dituen erregulazio onaren printzipioak betetzen ditu. Arrazoieta eta helburuetan adierazten den bezala, arauak erregulazio egokia eta nahikoa eman behar du lana urrutitik egiteak dakartzan alderdi bereizgarriei dagokienez, eta, horretarako, ez da nahikoa indarrean dauden aginduak aplikatzea, aplikazio hori alderdien autonomiaren esku utzita; izan ere, horrek babesgabetasun-egoerak, desberdintasun-egoerak eta oinarritzko eskubideen ezjakintasun-egoerak ekar ditzake berekin, asimetria-egoera eta urrutiko lana garatzen den espazio eta baliabide partikularrak direla-eta.

Eraginkorra eta proportzionala da, helburu hori bete ahal izateko ezinbestekoak diren alderdiak arautzen baititu, zeinak, besteak beste, Telelanari buruzko 2002ko Europako Esparru Akordioan jasota baitaude. Gardentasunaren printzipioa ere betetzen du, argi eta garbi identifikatzen baitu zer asmo duen, bai eta izapidetaren faseetan edukiaren azalpen osoa ematen ere.

Entzunaldiaren izapidea eta informazio publikoarena bete dira, eta ordezkariak handiena duten sindikatuei eta patronalei berariaz egin zaie kontsulta alde aurretik. Honen aurrekari den lege-dekretuaren izapidetzearen bitartean Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren irizpena jaso da.

Lege hau Espainiako Konstituzioaren 149. artikulua 1. apartatuko 7. eta 13. puntuetan xedatutakoaren babesean ematen da: xedapen horiek eskumen eskusiboak esleitzen dizkiote Estatuari lan-legeriaren arloan, bai eta jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarrien eta koordinazioaren arloan ere.

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. *Aplikazio-eremua.*

Lege hau aplikatuko zaie urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 1.1 artikuluan deskribatutako baldintzak betetzen dituzten eta urrutitik modu erregularrean garatzen diren lan-harremanei.

Ulertuko da urrutiko lana erregularra dela, baldin eta hiru hilabeteko erreferentzia-aldian ematen den urrutiko lana lanaldiaren ehuneko hogeita hamar bada gutxienez, edo lan-kontratuaren iraupenaren arabera ehuneko proportzional baliokidea.

2. artikulua. *Definizioak.*

Lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honela ulertu behar dira termino hauek:

a) «Urrutiko lana»: lana antolatzeko edo lan-jarduera egiteko modua, zeinaren arabera lana langilearen etxean edo langileak aukeratutako lekuan egiten baita, lanaldi osoan edo haren zati batean, erregularitasunez.

b) «Telelana»: bitarteko eta sistema informatiko, telematiko eta telekomunikaziokoak bakarrik edo nagusiki erabiliz egiten den urrutiko lana.

c) «Lan presentziala»: lantokian edo enpresak zehaztutako lekuan egiten den lana.

3. artikulua. *Urrutiko lanaren mugak.*

Adingabeekin egindako lan-kontratuetan eta praktikaldiko eta prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuetan, urrutiko lanari buruzko akordio bakarra egin ahalko da, hain zuzen, gutxienez ehuneko berrogeita hamarra modu presentzialean egiten dela bermatuko duena, hargatik eragotzi gabe, hala badagokio, azken horiei lotutako prestakuntza teorikoa telematikoki garatzea.

4. artikulua. *Tratu- eta aukera-berdintasuna eta diskriminaziorik eza.*

1. Urrutiko lana egiten duten pertsonen enpresaren lantokian lan eginez gero izango lituzketen eskubide berberak izango dituzte, lantokian bertan modu presentzialean lan egiteari berezkoak zaizkionak izan ezik, eta ezin izango dute inolako kalterik jasan beren lan-baldintzetako bakarrean ere, ordainsaria, enpleguaren egonkortasuna, lan-denbora, prestakuntza eta lanbide-sustapena barne.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa alde batera utzi gabe, urrutiko lana osotasunean edo partzialki egiten duten pertsonen eskubidea izango dute, gutxienez, beren lanbide-taldearen, mailaren, lanpostuaren eta eginkizunen arabera ezarritako ordainsari osoa jasotzeko, bai eta modu presentzialean bakarrik lan egiten duten langileentzat ezarritako osagarriak ere, bereziki baldintza pertsonalei, enpresaren emaitzei edo lanpostuaren ezaugarriei lotutakoak.

2. Urrutiko lana egiten duten pertsonen ezin izango dute inolako kalterik edo aldaketarik jasan hitzartutako baldintzetan, zehazki lanorduei edo ordainsariei dagokienez hitzartutakoetan, langileari egotzi ezin zaizkion eta tarteka sor daitezkeen zailtasunengatik, teknikoengatik edo bestelakoengatik, batez ere telelanaren kasuan.

3. Enpresek zuzeneko nahiz zeharkako diskriminazioa ekidin beharko dute urrutiko lana egiten duten langileei dagokienez, bereziki sexua, adina, antzinasuna, lanbide-taldea edo desgaitasuna dela eta izan daitezkeen diskriminazioa, eta ziurtatu beharko dute

tratu-berdintasuna eta laguntza emango dela; horretarako egoki eta arrazoizko diren egokitzapenak egingo dira.

Era berean, enpresek telelangileak edo urrutiko lana egiten duten langileak eta haien lan-ezaugarriak kontuan hartu beharko dituzte berdintasun-neurrien eta -planen diagnostikoan, ezarpenean, aplikazioan, jarraipenean eta ebaluazioan.

4. Aplikatzekoa den araudian aurreikusitakoaren arabera, enpresek urrutiko lanaren berezitasunak hartu beharko dituzte kontuan, batez ere telelanarenak, sexu-jazarpenaren, sexuagatiko jazarpenaren, diskriminazio-arrazoiengatiko jazarpenaren eta laneko jazarpenaren aurkako neurriak taxutzean eta aplikatzean.

Genero-indarkeriaren biktimak babesteko neurriak prestatzean, kontuan hartu beharko dira, bereziki, enpresek esparru horretan jarduteko duten gaitasunaren barruan, zerbitzuak emateko modu horrek izan ditzakeen ondorioak eta berezitasunak, pertsona horien eskubide sozial eta lanekoak babestu eta bermatze aldera.

5. Urrutiko lana egiten duten pertsonak modu presentzialean jarduten duten langileen eskubide berberak dituzte kontziliazioaren eta erantzunkidetasunaren arloan, Langileen Estatutuaren 34.8 artikuluan ezarritako lanaldira egokitzeko eskubidea barne, lanak bitzitza pertsonala eta familia-bitzitza oztopa ez dezan.

II. KAPITULUA

Urrutiko lanari buruzko akordioa

1. atala. Urrutiko lana borondatezkoa izatea

5. artikulua. Urrutiko lana borondatezkoa izatea eta urrutiko lanari buruzko akordioa.

1. Urrutiko lana borondatezkoa izango da langilearentzat eta enplegatzailearentzat, eta lege honetan araututako urrutiko lanari buruzko akordioa sinatu beharko da —akordio hori hasierako kontratuaren zati izan daiteke, edo geroago egin daiteke—; gainera, ezin izango da modalitate hori inposatu Langileen Estatutuaren 41. artikulua aplikazioaren bidez, hargatik eragotzi gabe legeriak edo negoziazio kolektiboak onar dezakeen urrutiko lanerako eskubidea.

2. Langileak urrutitik lan egin nahi ez izatea, lan presentzialera itzultzeko aukera baliatzea eta urrutiko lan-jarduera behar bezala garatzeko zailtasunak —soilik lan presentzial batetik urrutiko lanera aldatzearekin zerikusia dutenak—, ez dira lan-harremana azkentzea eta lan-baldintzak funtsean aldatzea justifikatzen duten arrazoiak izango.

3. Lan presentzialaren modalitate batetik abiatuta urrutitik lan egiteko erabakia hartzea itzulgarria izango da enpresarentzat eta langilearentzat. Itzulgarritasun hori negoziazio kolektiboan ezarritakoaren arabera gauzatu ahal izango da, edo, halakorik ezean, 7. artikuluan aipatutako urrutiko lanari buruzko akordioan ezarritakoaren arabera.

2. atala. Urrutiko lanari buruzko akordioa

6. artikulua. Urrutiko lanari buruzko akordioaren betebeharrak formalak.

1. Urrutiko lanari buruzko akordioa idatziz egin beharko da. Akordio hori hasierako lan-kontratuari erantsi ahal izango zaio edo geroago egin ahal izango da, baina, nolana ere, urrutiko lana hasi aurretik formalizatu beharko da.

2. Enpresak langileen legezko ordezkariari eman beharko die egiten diren urrutiko lanari buruzko akordio guztien eta horien eguneratzeen kopia bat, bazter utzita Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen babes zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoaren arabera norberaren intimitateari eragin diezaioketen datuak, eta Langileen Estatutuaren 8.4 artikuluan ezarritakoarekin bat. Emandako informazioa tratatzean datuak babestearen arloan aplikatu beharreko araudian aurreikusitako printzipioak eta bermeak beteko dituzte.

Kopia hori akordioa formalizatzen denetik gehienez ere hamar eguneko epean emango dio enpresak langileen legezko ordezkariari, eta hark sinatu egingo du kopia eman dela egiaztatzearen ondorioetarako.

Ondoren, enplegu-bulegora bidali behar da kopia hori. Bestalde, langileen legezko ordezkariarik ez dagoenean ere, oinarrizko kopia egin beharko da eta enplegu-bulegora bidali.

7. artikulua. *Urrutiko lanari buruzko akordioaren edukia.*

Urrutiko lanari buruzko akordioaren gutxienezko edukia honako hau izango da, hitzarmen edo akordio kolektiboetan horri buruz jasotako erregulazioari kalterik egin gabe:

a) Hitzartutako urrutiko lana egiteko behar diren baliabideen, ekipamenduen eta erreminten inbentarioa, kontsumigarriak eta elementu higigarriak barne, bai eta horien bizitza baliagarria edo horiek berritzeko gehieneko epea ere.

b) Urrutiko zerbitzuak emateagatik langileak izan ditzakeen gastuen zerranda, enpresak nahitaez ordaindu beharreko konpentsazioa kuantifikatzeko modua, eta konpentsazio hori egiteko unea eta modua, zeina bat etorriko baita, halakorik badago, aplikatzekoa den hitzarmen edo akordio kolektiboan jasotako aurreikuspenarekin.

c) Langilearen lan-ordutegia eta, hala badagokio, prestasun-arauak.

d) Lan presentzialaren eta urrutiko lanaren arteko banaketa eta ehunekoa, hala badagokio.

e) Urrutiko lana egiten duen langilea atxikita dagoen enpresaren lantokia, zeinean, hala badagokio, lanaldi presentzialaren zatia egingo baitu.

f) Urrutiko lana egiteko langileak aukeratutako urrutiko lantokia.

g) Itzulgarritasun-egoerak gauzatzeko aurreabisu-epeen iraupena, hala badagokio.

h) Jarduera kontrolatzeko enpresaren bitartekoak.

i) Urrutiko lana normaltasunez egitea eragozten duten zailtasun teknikoak izanez gero jarraitu beharreko prozedura.

j) Enpresak langileen legezko ordezkarien parte-hartzearekin batera datuak babestearen arloan emandako jarraibideak, urrutiko lanean berriaz aplikatzekoak direnak.

k) Enpresak, langileen legezko ordezkariak informatu ondoren, informazioaren segurtasunari buruz emandako jarraibideak, urrutiko lanean berriaz aplikatzekoak direnak.

l) Urrutiko lanari buruzko akordioaren iraupena.

8. artikulua. *Urrutiko lanari buruzko akordioa aldatzea eta lehentasunak antolatzea.*

1. Urrutiko lanari buruzko akordioan ezarritako baldintzen aldaketa, presentzialtasunaren ehunekoa barne, enpresaren eta langilearen artean adostu beharko da, eta idatziz formalizatuko da aplikatu aurretik. Aldaketa horren berri langileen legezko ordezkariari emango zaio.

2. Lan-harremana hasten denetik bertatik, lanaldi osoan urrutiko lana egiten duten pertsonen lehentasuna izango dute osorik edo partzialki modu presentzialean jarduteko diren lanpostuak betetzeko. Ondorio horietarako, enpresak urrutiko lana egiten duten pertsona horiei eta langileen legezko ordezkariari emango die modu presentzialean betetzeko sortzen diren lanpostu hutsiei buruzko informazioaren berri.

3. Hitzarmen edo akordio kolektiboetan, lan presentziala egiten duen pertsona urrutiko lanera edo urrutiko lana egiten duena presentzialera igarotzeko mekanismoak eta irizpideak ezarri ahal izango dira, bai eta inguruabar jakin batzuei lotutako lehentasunak ere; hala nola, dibertsitate funtzionala edo arrisku espezifikoak dituzten pertsonen prestakuntzarekin, sustapenarekin eta enplegu-egonkortasunarekin, enplegu-aniztasunarekin edo jarduera-aniztasunarekin edo egoera pertsonal edo familiar jakin batzuekin lotutakoak, bai eta lege honetan ezarritako lehentasunen antolamenduarekin lotutakoak ere.

Mekanismo horiek diseinatzean, saihestu egin beharko da genero-rolak eta -estereotipoak betikotzea, eta kontuan hartu beharko da emakumeen eta gizonen artean erantzunkidetasuna sustatzea; enpresan, hala badagokio, aplikatu beharreko berdintasun-planak diagnostikatu eta tratatuko du alderdi hori.

III. KAPITULUA

Urrutiko lana egiten duten langileen eskubideak

1. atala. *Karrera profesionalerako eskubidea*

9. artikulua. *Prestakuntzarako eskubidea.*

1. Enpresek behar diren neurriak hartu beharko dituzte urrutiko lana egiten duten pertsonen prestakuntza-ekintzetan modu eraginkorrean parte hartzen dutela bermatzeko, hain zuzen, enpresaren lantokian zerbitzuak ematen dituzten pertsonen parte hartzen duten baldintza berberetan; era berean, ekintza horien garapenean, ahal den neurrian, urrutiko zerbitzuak ematearen ezaugarriari erreparatu beharko diete.

2. Urrutiko lana egiten duten pertsonen beren jarduera behar bezala garatzeko behar duten prestakuntza bermatu beharko die enpresak, bai urrutiko lanari buruzko akordioa formalizatzeko unean, bai erabilitako bitarteko edo teknologietan aldaketak gertatzen direnean.

10. artikulua. *Lanbide-sustapenerako eskubidea.*

Urrutiko lana egiten duten pertsonen lanbide-sustapenerako eskubidea izango dute, lan presentziala egiten dutenen baldintza berberetan, eta enpresak berariaz eta idatziz eman beharko die lanpostuz igotzeko dauden aukeren berri, modu presentzialean garatu beharreko lanpostuak nahiz urrutiko lanaren bidez garatu beharreko lanpostuak izan.

2. atala. *Baliabideak hornitzeari eta mantentzeari, eta gastuak ordaintzeari eta konpentsatzeari buruzko eskubideak*

11. artikulua. *Baliabide, ekipamendu eta erreminta nahikoren hornidurarako eta horien mantenua izateko eskubidea.*

1. Urrutiko lana egiten duten pertsonen eskubidea izango dute enpresak behar bezala horni ditzan jarduera garatzeko behar diren baliabide, ekipamendu eta erreminta guztiez, bai eta haien mantentzea egin dezan ere, 7. artikuluan aipatutako akordioan jasotako inbentarioarekin eta, hala badagokio, aplikatu beharreko hitzarmen edo akordio kolektiboan ezarritako baldintzekin bat etorriz. Desgaitasuna duten langileen kasuan, enpresak ziurtatu beharko du baliabide, ekipamendu eta erreminta horietarako irispide osoa bermatzen dela, baliabide, ekipamendu eta erreminta digitaletarako irispina barne, arrazoi hori dela-eta egon daitekeen diskriminazioa ekiditeko.

2. Halaber, zailtasun teknikoen kasuan behar den arreta bermatuko da, batez ere telelanaren kasuan.

12. artikulua. *Gastuen ordainketa eta konpentsazioa jasotzeko eskubidea.*

1. Enpresak ordaindu edo konpentsatu beharko du urrutiko lana egitea, eta lan-mota horrek ezin izango du berekin ekarri langileak bere gain hartzea lan-jardueran baliatzen dituen ekipamendu, erreminta eta bitartekoekin lotutako gasturik.

2. Hitzarmen edo akordio kolektiboek gastu horiek zehazteko, konpentsatzeko edo ordaintzeko mekanismoa ezarri ahal izango dituzte.

3. atala. Lan-denboran eragina duten eskubideak

13. artikulua. *Ordutegi malgua izateko eskubidea, akordioan ezarritako baldintzetan.*

Urrutiko lanari buruzko akordioan eta negoziazio kolektiboan ezarritako baldintzen arabera, nahitaezko prestasun-denborak eta lan-denborari eta atsedenari buruzko araudia errespetatuz, urrutiko lana egiten duen pertsonak malgutu ahal izango du zerbitzuak emateko ezarritako ordutegia.

14. artikulua. *Ordutegi-erregistro egokirako eskubidea.*

Langileen Estatutuaren 34.9 artikuluan arautzen den ordutegi-erregistroko sistemak, negoziazio kolektiboan ezarritakoaren arabera, zehatz-mehatz adierazi beharko du urrutiko lana egiten duen langileak zer denbora ematen duen lan-jardueran, ordutegi-malgutasuna alde batera utzi gabe, eta, besteak beste, lanaldia hasteko eta amaitzeko unea jaso beharko du.

4. atala. Laneko arriskuen prebentziorako eskubidea

15. artikulua. *Prebentzioari buruzko araudia urrutiko lanean aplikatzea.*

Urrutitik diharduten langileek lanean segurtasun- eta osasun-babes egokia izateko eskubidea dute, eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean eta berau garatzeko araudian ezarritakoa aplikatuko zaie.

16. artikulua. *Kontratututako jardueraren arriskuak ebaluatu eta prebentzio-jarduera planifikatzea.*

1. Arriskuen azterketak eta urrutiko lanaren prebentzio-jardueraren plangintzak kontuan hartu beharko dituzte lan-modalitate horren berezko arriskuak, arreta berezia jarriz benetako lan-inguruneke faktore psikosozialetan, ergonomikoetan, antolamenduzkoetan eta irisgarritasunarekin loturikoetan. Bereziki aintzat hartu beharrekoak izango dira: lanaldiaren banaketa, prestasun-denborak eta lanaldiko atsedenaldien eta deskonexioen bermea.

Arriskuen azterketak kontuan hartuko du soilik zerbitzuak emateko gaitutako eremua, eta ez da zabaldu behar etxebizitzako edo urrutiko lana egiteko aukeratutako tokiko gainerako eremuetara.

2. Urrutiko lana egiten duen pertsonak dituen arriskuei buruzko informazio guztia eskuratu beharko du enpresak, lortzen diren emaitzak fidagarriak direla ziurtatzen duen metodologiaren bidez, eta kasuan-kasuan egokienak diren babes-neurriak aurreikusi beharko ditu.

Informazio hori lortzeko, prebentzio-arloko eskumenak dituenak joan behar badu 7. artikuluan aipatzen den akordioan jasotakoaren arabera urrutiko lana egiten den lekura, idatzizko txostena egin beharko da, non hori justifikatuko baita. Txosten hori langileari eta prebentzio-arloko ordezkariari eskuratuko zaie gero.

Aipatutako bisita hori egiteko, nolana ere, langilearen baimena beharko da, bere bizilekua edo hirugarren pertsona fisiko batena bada.

Baimen hori ematen ez bada, enpresak prebentzio-jarduera egiteko oinarri hartuko du langilearengandik bildutako informaziotik eratorritako arriskuen zehaztapena, prebentzio-zerbitzuaren jarraibideen arabera emandako informazioa izango baita.

5. atala. Bitarteko digitalen erabilerarekin lotutako eskubideak

17. artikulua. *Intimitaterako eta datuen babeserako eskubidea.*

1. Bitarteko telematikoak erabiltzean eta lan-prestazioa gailu automatikoen bidez kontrolatzean intimitaterako eta datuen babeserako eskubidea behar bezala bermatzen

dela ziurtatu beharko da, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatu bezala, hain zuzen, eta erabilitako bitartekoen egokitasun-, premia- eta proportzionaltasun-printzipioen arabera.

2. Enpresak ezin izango du eskatu langilearen jabetzako gailuetan programak edo aplikazioak instalatzea, ezta gailu horiek urrutiko lana egiteko erabiltzea eskatu ere.

3. Enpresek gailu digitalak erabiltzeko irizpideak ezarri beharko dituzte, intimitatea babesteko gutxieneko estandarrak gordez betiere, Konstituzioak eta legeek aitorturiko erabilera sozialekin eta eskubideekin bat eginda. Langileen legezko ordezkariak parte hartu beharko dute plana prestatzen.

Hitzarmen edo akordio kolektiboetan zehaztu ahal izango da nola erabili ahal izango dituzten langileek, arrazoi pertsonalengatik, enpresak urrutiko lana egiteko haien esku jarritako ekipamendu informatikoak, bitarteko horien erabilera sozialak eta urrutiko lanaren berezitasunak kontuan hartuta.

18. artikulua. *Deskonexio digitalerako eskubidea.*

1. Urrutiko lana egiten dutenek, batez ere telelanean, lan-ordutegitik kanpo deskonexio digitalerako eskubidea dute, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 88. artikuluan ezarritako baldintzetan.

Deskonexioa bermatzeko enpresak duen betebeharrak berekin dakar atsedendietan enpresako eta laneko komunikazio-bitarteko teknologikoen erabilera mugatzea, eta errespetatu beharko ditu lanaldiaren gehieneko iraupena eta aplikatu beharreko lege- edo hitzarmen-araudian lanaldiari dagokionez ezarritako edozein muga eta neurri.

2. Enpresak, aldeztu aurretik langileen ordezkariari entzunda, langileei, baita zuzendaritza-postuetan daudenei ere, zuzendutako barne-politika bat landuko du, zeinean definituko baitira deskonexio-eskubidea egikaritzeko modalitateak, batetik, eta neke informatiborako arriskua ekiditeko tresna teknologikoak zentzuz erabiltzeko prestakuntza eta sentsibilizatorako ekintzak, bestetik. Bereziki, deskonexio digitalerako eskubidea zainduko da, tresna teknologikoen erabilerari dagokionez, eta lana oso-osorik edo partez urrutitik egiten duten enplegatuen kasuetan edo lan helburuekin bizitokia baliatzen duten enplegatuen kasuan.

Lan-hitzarmen edo -akordio kolektiboek bitarteko eta neurri egokiak ezarri ahal izango dituzte, urrutiko lanean deskonexiorako eskubidea benetan gauzatzen dela eta lanaldia behar bezala antolatzen dela bermatzeko, atsedendiak bermatzearekin bateragarria izan dadin.

6. atala. *Eskubide kolektiboak*

19. artikulua. *Urrutiko lana egiten duten pertsonen eskubide kolektiboak.*

1. Urrutiko lana egiten duten langileek eskubide kolektiboez baliatzeko eskubidea izango dute, atxikita dauden zentroko gainerako langileen eduki eta irismen berarekin.

Ondorio horietarako, negoziazio kolektiboak urrutiko lana egiten duten langileen eskubide kolektiboen erabilera bermatzeko baldintzak ezarri ahal izango ditu prestazioaren berezitasunak kontuan hartuta, betiere urrutiko lana egiten duen langilearen eta enpresako establezimenduan lanean diharduenaren arteko tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa erabat errespetatuz.

2. Enpresak langileen legezko ordezkariari beren ordezkaritza-jarduera garatzeko behar dituzten elementuak jarri beharko dizkie eskura, besteak beste, enpresan erabiltzen diren komunikazio eta helbide elektronikoetarako sarbidea, eta iragarki-taula birtuala ezarri beharko du, hori urrutiko lana egiteko moduarekin bateragarria denean.

Ziurtatu beharko da ez dagoela oztoporik urrutiko langileen eta haien legezko ordezkarien eta gainerako langileen arteko komunikatorako.

3. Bermatu beharko da urrutiko lana egiten duten langileek eraginkortasunez parte har dezaketela beren legezko ordezkariak edo gainerako langileek beren lan-interesen alde antolatutako edo deitutako jardueretan; bereziki bermatuko da modu presentzialean parte hartu ahal izango dutela legezko ordezkariak aukeratzeko hauteskundeetan botoa emateko eskubidea egikaritzeko.

IV. KAPITULUA

Urrutiko lana dela-eta antolatzeko, zuzentzeko eta kontrolatzeko enpresak dauzkan ahalmenak

20. artikulua. *Datuen babesa eta informazioaren segurtasuna.*

1. Enpresak langileen legezko ordezkarien parte-hartzearekin batera datuen babesari buruzko legediaren esparruan ezarritako jarraibideak bete beharko dituzte urrutiko lanean diharduten langileek.

2. Enpresak informazioaren segurtasunari buruz berariaz ezarritako jarraibideak bete beharko dituzte urrutiko lanean diharduten langileek, enpresak jarraibide horiek legezko ordezkariak jakinarazi ondoren.

21. artikulua. *Ekipamendu edo tresna informatikoak erabiltzeko eta kontserbatzeko baldintzak eta jarraibideak.*

Enpresak ekipamendu edo tresna informatikoak erabiltzeko eta onik zaintzeko ezarri dituen baldintzak eta jarraibideak bete beharko dituzte langileek, betiere, kasuan-kasuan, negoziazio kolektiboan ezarritako baldintzen arabera.

22. artikulua. *Enpresaren kontrol-ahalmenak.*

Langileak laneko bere betebeharrak eta eginbeharrak betetzen dituela egiaztatzeko zaintza- eta kontrol-neurririk ustez egokienak har ditzake enpresak, horren barne dela baliabide telematikoen erabilera, langilearen duintasunari zor zaion begirunea zainduz, eta, hala dagokionean, inguruabar pertsonalak, desgaitasuna egotea adibidez, kontuan harturik.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Urrutiko lana negoziazio kolektiboan.*

1. Hitzarmen edo akordio kolektiboek alderdi hauek ezarri ahal izango dituzte, beren eremuko jarduera zehatzaren espezifikotasuna kontuan hartuta: urrutiko lanaren bidez bete daitezkeen lanpostuak eta funtzioak identifikatzea; modalitate horretan sartzeko eta lan-jarduera garatzeko baldintzak; urrutiko lanaren gehieneko iraupena; urrutiko lanari buruzko akordioan eduki gehigarriak jasotzea, eta arautu beharrekotzat jotzen diren gainerako gai guztiak.

2. Hitzarmen edo akordio kolektiboek alderdi hauek arautu ahal izango dituzte: gutxieneko lanaldi presentzial bat urrutiko lanean; enpresako lokaletan lanera itzultzeko aukera baliatzea; erreferentziazko ehuneko edo aldi hori lege honetan finkatutakoa baino txikiagoa izatea, lan-jarduera gauzatzeko modalitate hau «erregulartzat» jotzearen ondorioetarako; prestakuntza-kontratuetan lan presentzialaren ehunekoa bertan aurreikusitakoaz bestelakoa izatea, betiere adingabeekin egiten ez badira; eta deskonexiorako eskubidearen modulazioaren aparteko inguruabarrak.

Bigarren xedapen gehigarria. *Administrazio publikoen zerbitzuan diharduten lan-kontratupeko langileak.*

Lege honetan jasotako aurreikuspenak ez zaizkie aplikatuko administrazio publikoen zerbitzuko lan-kontratupeko langileei; izan ere, arlo horretan, berariazko araudia izango dute.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Erreferentzia egoitza, lan-agintaritza eskuduna eta enplegua sustatzeko aplikatu daitezkeen zerbitzu eta programa publikoak kokatzearen ondorioetarako.*

Lan-agintaritza eskuduna eta enplegua sustatzeko aplikatu daitezkeen zerbitzu eta programa publikoak kokatzearen ondorioetarako, eta urrutiko lanari dagokionez, erreferentzia egoitza izango da lan-kontratuan gisa horretan agertzen dena, edo, halakorik ezean, enpresaren edo zentroaren egoitza edo lantoki fisikoa.

Laugarren xedapen gehigarria. *Lan-istripuak eragindako kontingentzia profesionaltzat hartzea osasun-zentroetan edo zentro soziosanitarioetan lan egiten duten langileek alarma-egoeran SARS-CoV2 birusaz kutsatua izatearen ondorioz hartutako gaixotasunak.*

1. Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemia deklaratu zuenetik, eta osasun-agintariek COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko hartutako prebentzio-neurri guztiak kendu arte, osasun-zentroetan edo zentro soziosanitarioetan lan egiten duten eta dagokien erregistroan inskribatuta dauden langileek sortzen dituzten Gizarte Segurantzako prestazioak laneko istripuen ondoriozko prestaziotzat hartuko dira, baldin eta langileok, beren lanbidean zihardutela eta osasun-zerbitzuak eta zerbitzu soziosanitarioak ematen zituzten bitartean SARS-CoV2 birusaren arriskuaren eraginpean egonda, birusa hartu badute, eta laneko arriskuen prebentzioko eta laneko osasuneko zerbitzuek hala egiaztatzen badute, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 156.2.e) artikuluan eskatzen diren baldintzak betetzen direla iritzita (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori).

2. Kutsatu izana eta gaixotasuna pasatu izana dagokion lan-istripuaren partearen bidez egiaztatuko da, zeina erreferentziako aldiaren barruan igorria izan beharko baita.

3. Gaixotasunaz kutsatu eta horren ondorioz hilez gero hurrengo bost urteak igaro baino lehen, lan-istripuztat joko da heriotza, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 217.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bosgarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileek, autonomia-erkidegoek eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalak aldi baterako ezintasunak kontrolatzeko eta haien jarraipena egiteko sinatzen dituzten lankidetzahitzarmenak.*

Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileek autonomia-erkidegoekin eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalarekin sinatutako lankidetzahitzarmenetan, zeinak aldi baterako ezintasunak kontrolatzeko eta haien jarraipena egiteko baitira, autonomia-erkidegoek eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalak garatu beharreko jarduerak finantzatzeko aurreikusitako zenbateko osora arteko aurrerakina xedatu ahal izango da.

Hori egiteko, aurreko paragrafoan aipatutako hitzarmenak formalizatu baino lehen, Ministro Kontseiluak baimena eman beharko du. Helburu horrekin, Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioaren titularrak, Ogasun Ministerioaren txostena jaso ondoren, dagokion proposamena egingo dio Ministroen Kontseiluari.

Hitzarmen horietan, eta hitzarmen horietan bakarrik, ez da aplikatuko Aurrekontuen Lege Orokorraren 47. artikulua 1. apartatuan xedatutakoa, gastuaren konpromisoa hartzen den ekitaldian bertan gastuak egiten hasi beharri dagokionez.

Seigarren xedapen gehigarria. *«UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finalari aplikatuko zaion zerga-araubidea.*

Bat. «UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finalaren entitate antolatzailearen eta bertan parte hartzen duten taldeen zerga-araubidea:

«UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finala antolatuko duen entitateak eta bertan parte hartzen duten taldeek Espainiako lurraldean eratzen dituzten

pertsona juridikoek sozietateen gaineko zergaren kargatik salbuetsita edukiko dituzte ekitaldian zehar lortzen dituzten errentak, zuzenean lotuta badaude ekitaldi horretan aritzearekin.

Aurreko paragrafoan ezartzen dena ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan ere aplikatuko zaie «UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finala antolatuko duen entitateak eta bertan parte hartzen duten taldeek Espainiako lurraldean eratzten dituzten establezimendu iraunkorrek lortutako errentei, zuzenean lotuta badaude ekitaldi horretan aritzearekin.

«UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finala antolatuko duen entitateak eta bertan parte hartzen duten taldeek «UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finala dela-eta establezimendu iraunkorrik gabe lortzen dituzten errentak salbuetsita egongo dira, zuzenean lotuta badaude ekitaldi horretan aritzearekin.

Bi. Entitate antolatzaileei edo ekitaldietan parte hartzen duten taldeei zerbitzuak ematen dizkieten pertsona fisikoen zerga-araubidea:

1. Ez dira hartuko Espainian lortutako errentatzat egoitza Espainian ez duten pertsona fisikoek entitate antolatzaileari edo talde parte-hartzaileei «UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finalaren harira ematen dizkieten zerbitzuengatik jasotzen dituzten errentak, baldin eta errentak zuzenean lotuta badaude ekitaldi horretan aritzearekin.

2. «UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finala jokatzeko Espainiako lurraldera joan eta ondorioz pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadun bihurtzen diren pertsona fisikoek ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga ordaintzea hautatu ahal izango dute, azaroaren 28ko 35/2006 Legeak (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duenak eta sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga partzialki aldatzen dituenak) 93. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorri eta bertan jartzen diren baldintzekin bat.

Hiru. «UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finala jokatzeko inportatzen diren salgaien aduana-araubidea eta zerga-araubidea:

1. Oro har, «UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finala jokatzeko inportatzen diren salgaien aduana-araubidea arau hauetan ezartzen da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko urriaren 9ko (EB) 952/2013 Erregelamendua, Batasunaren Aduana Kodea ezartzen duena, eta aplikatu beharreko gainerako aduana-legeria.

2. Aurrekoa alde batera utzi gabe, Batasunaren Aduana Kodeak 251. artikuluan ezartzen duenarekin eta Aldi Baterako Inportazioaren Itunak (Istanbul, 1990eko ekainaren 26a) 7. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorri, apartatu honen 1. zenbakian aipatzen diren salgaiak, aldi baterako inportazioaren aduana-araubidean sartzen badira, araubide horretan gehienez ere 24 hilabetez egon ahal izango dira sartzen direnetik; nolahi ere, araubidea bertan behera geratuko da «UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finala jokatzeko den urtearen ondoko urteko abenduaren 31n.

3. Zerga Administrazioako Estatu Agentziako Aduanen eta Zerga Berezien Sailari baimena ematen zaio hirugarren zenbaki honetan xedatzen dena betetzeko behar diren neurri guztiak hartzeko.

Lau. Balio erantsiaren gaineko zerga:

1. Salbuespena ezartzen da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legeak 119 bis artikuluan 2. zenbakian xedatzen duena aplikatzeko: «UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finala dela-eta egiten diren eragiketen ondorioz zergaren kuotak jasaten edo ordaintzen dituzten enpresaburuei eta profesionaleri, egoitza Batasunean ez dutenei, ez zaie eskatuko elkarrekikotasunik itzulketetan.

2. Salbuespena ezartzen da abenduaren 28ko 37/1992 Legeak 164. artikuluan 1. apartatuko 7. zenbakian xedatzen duena aplikatzeko: egoitza ez Batasunean, ez Kanarietan, ez Ceutan, ez Melillan ez duten enpresaburuek eta profesionalek eta egoitza Batasunekoen antzeko elkarri laguntzeko tresnaren bat hitzartuta dagoen estatu batean dutenek ez dute edukiko ordezkaririk izendatu beharrik lege horretan ezartzen diren betebeharrak betetzeko.

3. Egoitza zergaren aplikazio-eremuan ez duten enpresaburuek eta profesionalek, subjektu pasiboak badira eta kuotak jasaten edo ordaintzen badituzte «UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finalarekin lotutako eragiketak egiteagatik, eskubidea edukiko dute likidazio-aldi bakoitza amaitutakoan kuota horiek itzul diezazkieten.

Enpresaburu eta profesional horien likidazio-aldia hil naturala da. Hil bateko aitorten-likidazioa hurrengo hileko lehen 20 egun naturaletan aurkeztu behar dute. Hala ere, urteko azken likidazio-aldiko aitorten-likidazioa urtarrileko lehenengo hogeita hamar egun naturaletan aurkeztu beharko da.

Aurreko paragrafoan ezartzen denak ez dakar berekin enpresaburu eta profesional horiek zergaren erregistro-liburuak Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Egoitza Elektronikokoaren bidez arteztu behar izatea (Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua, 62.6 artikulua; erregelamendu hori abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

Zenbaki honetan xedatzen dena honako hauei ere aplikatuko zaie: ekitaldia antolatzen duen entitateari, bertan parte hartzen duten taldeei eta aurreko 1. zenbakian aipatzen diren pertsona juridikoei.

Hala ere, egoitza zergaren aplikazio-eremuan ez duten enpresaburuei eta profesionalei, baldin eta abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 119. edo 119 bis artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte, artikuluan horietan eta zergaren erregelamenduaren 31. eta 31 bis artikuluetan arautzen den prozeduraren bidez itzuliko zaizkie jasandako kuotak (erregelamendu hori 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

4. Eskubideen erabateko salbuespena duen aldi baterako inportazioaren araubidean —aurreko apartatuan (hirugarrena) aipatutakoan— dauden ondasunekin egindako eragiketei zergaren legeak 24. artikuluan xedatzen duena aplikatuko zaie.

5. Zergaren legeak 9. artikuluan 3. apartatuko g) letran aipatzen duen epealdia aurreko apartatuko (hirugarrena) 2. puntuan ezartzen dena izango da «UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finalean aldi batez erabiltzen diren ondasunetarako.

6. Zergaren legeak 70. artikuluan bigarren apartatuan ezartzen duen erregela ez zaie aplikatuko apartatu honen 1. puntuko zerbitzuei kasu honetan: «UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finala dela-eta entitate antolatzaileak edo bertan parte hartzen duten taldeek eratu duten eta egoitza Espainian duen pertsona juridiko batek ematen baditu eta zerbitzuen funtsa ekitaldi horren antolaketa, sustapena edo babesa bada.»

Zazpigarren xedapen gehigarria. *Balio erantsiaren gaineko zergaren zerga-tasa, COVID-19aren ondorioei aurre egiteko beharrezkoak diren ondasunen Europar Batasunaren barruko entregei, inportazioei eta eskurapenei aplikatuko zaiena.*

Ekonomiaren eta enpleguaren aldeko premiazko neurri osagarrien apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretua indarrean jartzen denetik 2020ko urriaren 31ra arte, balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 0ko tasa aplikatuko zaie lege honen eranskinean aipatzen diren ondasunen Europar Batasunaren barruko entregei, inportazioei eta eskurapenei, baldin eta horien hartzaileak zuzenbide publikoko erakundeak, klinikak edo ospitaleak badira edo Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 20. artikuluan hirugarren apartatuan aipatzen diren gizarte-izaerako entitate pribatuak badira. Eragiketa horiek salbuetsitako eragiketa gisa dokumentatuko dira fakturan.

Zortzigarren xedapen gehigarria. *Lanbide heziketako irakasleak.*

Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak 95. artikulua 2., 3. eta 4. apartatuetan xedatzen duen erregelamendu bidezko garapena osatzen ez den bitartean, hezkuntza-administrazioak gaitzen dira karrerako funtzionarioen hautaketa egin dezaten lanbide heziketako irakasle teknikoaren kidegorako, bai eta behin-behineko langileen izendapena ere, horretarako abenduaren 29ko 3/2020 Legea indarrean jarri aurretik zeuden enplegu eskaintza publikoaren deialdiak baliatuta, eta kidego horretarako zeuden betekizunak aintzat hartuta. Abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen du.

Lehenengo xedapen iragankorra. *Lege hau indarrean jartzean dauden urrutiko lan-egoerak.*

1. Lege hau oso-osorik aplikatuko zaie bera argitaratu aurretik indarrean dauden eta urrutiko zerbitzuak emateko baldintzei buruzko hitzarmen edo akordio kolektiboaren bidez araututa dauden lan-harremanei, hitzarmen edo akordio horiek indarra galtzen duten unetik aurrera.

Aurreko apartatuan aipatutako hitzarmenek edo akordioek ez badute iraupen-epetik aurrekusten, arau hau oso-osorik aplikatuko da *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta urtebete igaro ondoren, salbu eta alderdi sinatzaileek berariaz epe luzeagoa adosten badute; epe hori, gehienez, hiru urtekoa izan ahal izango da.

2. Inolaz ere, ezin izango da, lege hau aplikatzearen ondorioz, konpentsatu, xurgatu edo desagertu urrutiko zerbitzuak lehenagotik ematen zituzten pertsonen baliatzeko zeuzkaten eskubide edo baldintza onuragarriagoetatik edozein, zeinak jasoko baitira urrutiko lanari buruzko akordioan, 7. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Lege honen II. kapituluko bigarren atalean araututako urrutiko lanari buruzko akordioa hiru hilabeteko epean formalizatu beharko da, arau hau kasuan kasuko lan-harremanari aplikatu behar zaionetik kontatzen hasita. Epe berean egokitu edo aldatu beharko dira lege hau argitaratzen den egunean indarrean dauden urrutiko lanari buruzko akordio indibidualak, hitzarmen edo akordio kolektiboetatik ez datozenak.

Bigarren xedapen iragankorra. *Atzeraeraginik eza.*

Lege honen azken xedapenetako lehenengoaren bigarren apartatua indarrean jarri aurretik egindako lan-arloko arau-hausteak egun hori baino lehen xedatuta zegoen zenbatekoarekin zehatuko dira.

Hirugarren xedapen iragankorra. *Urrutiko lana, COVID-19a dela-eta osasun arloan hartutako euste-neurri gisa.*

Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 5. artikulua aplikatuz salbuespenez ezarritako urrutiko lanari edo COVID-19a dela-eta osasun arloan hartutako euste-neurrien ondorioz ezarritakoari lan-araudi arrunta aplikatuko zaie neurri horiek indarrean jarraitzen duten bitartean.

Nolanahi ere, urrutiko lana egiteko behar diren bitartekoak, ekipamenduak, erremintak eta kontsumigarriak hornitu beharko dituzte enpresek, bai eta beharrezko mantentze-lanak egin ere.

Hala badagokio, negoziazio kolektiboak ezarriko du nola konpentsatu behar diren urrutiko lan horrek langileari eragindako gastuak, halakorik badago eta dagoeneko konpentsatu ez badira.

Laugarren xedapen iragankorra. *Lege hau indarrean jarri aurretik abiarazitako eta ebazpen espresik eman ez den bizitzeko gutxieneko diru-sarrerara aitortzeko prozedurei aplikatu beharreko araubidea.*

Lege hau indarrean jarri aurretik ebazpen espresik eman ez den bizitzeko gutxieneko diru-sarrerara aitortzeko prozedurei ondoren ezartzen dena aplikatuko zaie.

1. Ebazteko eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da, Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrerara ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretuaren 25.3 artikuluan jasotakoaren arabera, nahiz eta lege hau indarrean jartzen den egunean hiru hilabete igaroak izan eskabidea aurkeztu zenetik. Helburu horretarako, ebazpen espresik eman gabe igarotako aldia kontuan hartuko da 25.3 artikuluan ezarritako sei hilabeteak zenbatzeko.

2. Xedapen iragankor hau indarrean jartzean bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazio ekonomikoa aitortzeko prozedura zein egoeratan dagoen alde batera utzita, interesdunek kalteberatasun-baldintza betetzen dutela egiaztatuko da; baldintza hori, izan ere, prestazioa izapidetzen jarraitu ahal izateko bete beharreko betekizun gisa ezarrita dago maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretuaren 7.1.b) artikuluan. Betekizun hori egiaztatuta ez badago, prozedura izapidetzen jarraitzea ezinezkoa dela adierazten duen ebazpena emango da.

Ebazpen horren aurka, aurretiazko administrazio-erreklamazioa jarri ahal izango da Gizarte Segurantzako prestazioen arloan, Lan Arloko Jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legearen 71. artikuluan ezarritakoaren arabera; erreklamazio horren xedea mugatuko da prozedurak aurrera jarraitzeko aukera ezagutzera, aipatutako 7.1.b) artikuluan ezarritako kalteberatasun-betekizuna betetzen delako. Beraz, aurretiazko erreklamazioa baiesteak ondorio bakararra izango du: administrazio-izapidearekin jarraitu ahal izateko bidea ematea.

Prozedurarekin jarraitzeak ez du eragotziko eskaera ezeztatua izatea, baldin eta erakunde kudeatzaileak 7.1.b) artikuluan aurreikusitako kalteberatasun-betekizuna ez betetzea dakarten beste egiaztapen batzuk egiten baditu.

Azken xedapenetako lehenengoa. *Abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Lan-arloko arau-hauste eta zehapenei buruzko Legearen testu bategina aldatzea.*

Bat. Abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Lan-arloko arau-hausteei eta zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 7. artikulua 1. apartatua aldatu eta honela geratzen da idatzita:

«1. Lan-kontratua idatziz ez formalizatzea, baldintza hori exijitu daitekeenean edo langileak eskatu duenean, edo urrutiko lanari buruzko akordioa ez formalizatzea legez eta hitzarmenez aurreikusitako baldintzen eta betekizunen arabera».

Bi. Abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Lan-arloko arau-hausteei eta zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 40. artikulua aldatu eta honela geratzen da idatzita:

«40. artikulua. *Zehapenen zenbatekoa.*

1. Lan-harremanen eta enpleguaren arloko arau-haustek; Gizarte Segurantzaren arlokoak —ezertan galarazi gabe ondoren datorren 3. apartatuan xedatutakoa—; migrazio-mugimenduen eta atzerritarren lanaren arlokoak; aldi baterako laneko enpresen eta enpresa erabiltzaileen arlokoak —lan-arriskuen prebentzioaren arlokoak izan ezik, horiek artikulua honen 2. apartatuan jasoko baitira—, bai eta oztopatzearen arloko arau-haustek ere, honela zehatuko dira:

a) Arau-hauste arinak: isuna, gutxieneko graduan, 70 eta 150 euro bitartekoa; gradu ertainean, 151 eta 370 euro bitartekoa; eta, gehienezko graduan, 371 eta 750 euro bitartekoa.

b) Arau-hauste astunak: isuna, gutxieneko graduan, 751 eta 1.500 euro bitartekoa; gradu ertainean, 1.501 eta 3.750 euro bitartekoa; gehienezko graduan, 3.751 eta 7.500 euro bitartekoa.

c) Arau-hauste oso astunak: isuna, gutxieneko graduan, 7.501 eta 30.000 euro bitartekoa; gradu ertainean, 30.001 eta 120.005 euro bitartekoa; gehienezko graduan, 120.006 eta 225.018 euro bitartekoa.

d) 22.3, 23.1 b) eta 23.1 k) artikuluetan jasotako arau-hausteak honela zehatuko dira:

1.a Honela zehatuko da 22.3 artikulua jasotzen duen arau-hauste astuna: isuna, gutxieneko graduan, sartu gabeko Gizarte Segurantzaren eta baterako diru-bilketaren gainerako kontzeptuen kuotei —errekarguak, interesak eta kostak barne— dagokien zenbatekoaren ehuneko 50 eta 65 bitartekoa; gradu ertainean, zenbatekoaren ehuneko 65,01 eta 80 bitartekoa; gehienezko graduan, zenbatekoaren ehuneko 80,01 eta 100 bitartekoa.

2.a Honela zehatuko da 23.1.b) artikulua jasotzen duen arau-hauste oso astuna: isuna, gutxieneko graduan, sartu gabeko Gizarte Segurantzaren eta baterako diru-bilketaren gainerako kontzeptuen kuotei —errekarguak, interesak eta kostak barne— dagokien zenbatekoaren ehuneko 100,01 eta 115 bitartekoa; gradu ertainean, zenbatekoaren ehuneko 115,01 eta 130 bitartekoa; gehienezko graduan, zenbatekoaren ehuneko 130,01 eta 150 bitartekoa.

3.a Honela zehatuko da 23.1.k) artikulua jasotzen duen arau-hauste oso astuna: isuna, gutxieneko graduan, sartu gabeko eta langileei deskontatutako Gizarte Segurantzaren kuotei edo legez xedatutako gehiegizko deskontuaren kuotei —errekarguak, interesak eta kostak barne— dagokien zenbatekoaren ehuneko 100,01 eta 115 bitartekoa; gradu ertainean, zenbatekoaren ehuneko 115,01 eta 130 bitartekoa; gehienezko graduan, zenbatekoaren ehuneko 130,01 eta 150 bitartekoa.

e) 22.2, 22.7 a), 22.16 eta 23.1.a) artikuluetan jasotako arau-hausteak honela zehatuko dira:

1.a Honela zehatuko da 22. artikulua 2. zenbakiak, artikulua beraren 7. zenbakiaren a) letrak eta 16. zenbakiak jasotzen dituzten arau-hauste astunak: isuna, gutxieneko graduan, 3.750 eta 7.500 euro bitartekoa; gradu ertainean, 7.501 eta 9.600 euro bitartekoa; gehienezko graduan, 9.601 eta 12.000 euro bitartekoa.

2.a Honela zehatuko da 23.1.a) artikulua jasotzen duen arau-hauste oso astuna: isuna, gutxieneko graduan, 12.001 eta 30.000 euro bitartekoa; gradu ertainean, 30.001 eta 120.005 euro bitartekoa, eta gehienezko graduan, 120.006 eta 225.018 euro bitartekoa.

Hala ere, ikuskapen-jarduketara berean apartatu honek jasotzen dituen arau-hausteetako bat baino gehiago egin dela antzematen bada, 39.2 artikuluan jasotako irizpideekin bat horietako bakoitzari ezarritako isuna honela handitu beharko da:

Ehuneko 20a arau-hauste bakoitzean, bi langile, onuradun edo eskatzaile badira.

Ehuneko 30a arau-hauste bakoitzean, hiru langile, onuradun edo eskatzaile badira.

Ehuneko 40a arau-hauste bakoitzean, lau langile, onuradun edo eskatzaile badira.

Ehuneko 50a arau-hauste bakoitzean, bost langile, onuradun edo eskatzaile badira.

Inolaz ere, 22.2 artikuluan jasotako arau-hausterako ezarri den zenbatekoa ezingo da izan 12.000tik gorakoa, ez eta 23.1.a) artikuluan ezarritakoa 225.018 eurotik gorakoa.

f) Oztopatzea antzeman duen ikuskapen-jarduketaren helburua baldin bazen enpresa batean zerbitzua ematen duten langileak altan daudela egiaztatzea, eta enpresaburuak betebeharretan huts egitearen ondorioa bada 22.2 eta 23.1.a) artikuluetan jasotako arau-hausteak egitea, oztopatzeagatiko arau-hausteak honela zehatu dira:

1.a Arau-hauste astun gisa sailkatutakoak: isuna, gutxieneko graduan, 3.750 eta 7.500 euro bitartekoa; gradu ertainean, 7.501 eta 9.600 euro bitartekoa; eta, gehienezko graduan, 9.601 eta 12.000 euro bitartekoa.

2.a Arau-hauste oso astun gisa sailkatutakoak: isuna, gutxieneko graduan, 12.001 eta 30.000 euro bitartekoa; gradu ertainean, 30.001 eta 120.005 euro bitartekoa; eta, gehienezko graduan, 120.006 eta 225.018 euro bitartekoa.

Legegintzako errege-dekretuaren 16. artikulua 1. apartatuko d), e) eta f) letretan eta 23. artikulua 1. apartatuko a) eta h) letretan arau-hauste oso astun gisa tipifikatu direnei ezarritako zehapenak, eta oztopatzeagatik aurreko paragrafoan oso astun gisa sailkatutakoei ezarritakoak, erregelamendu bidez zehaztu moduan jarriko dira jendaurrean irmo bihurtu ondoren.

2. Laneko arriskuen prebentzioaren arloko arau-hausteak honela zehatuko dira:

a) Arau-hauste arinak: isuna, gutxieneko graduan, 45 eta 485 euro bitartekoa; gradu ertainean, 486 eta 975 euro bitartekoa; eta, gehienezko graduan, 976 eta 2.450 euro bitartekoa.

b) Arau-hauste astunak: isuna, gutxieneko graduan, 2.451 eta 9.830 euro bitartekoa; gradu ertainean, 9.831 eta 24.585 euro bitartekoa; gehienezko graduan, 24.586 eta 49.180 euro bitartekoa.

c) Arau-hauste oso astunak: isuna, gutxieneko graduan, 49.181 eta 196.745 euro bitartekoa; gradu ertainean, 196.746 eta 491.865 euro bitartekoa; gehienezko graduan, 491.866 eta 983.736 euro bitartekoa.

Arau-hauste oso astunengatik ezarritako zehapenak erregelamendu bidez zehaztu moduan jarriko dira jendaurrean irmo bihurtu ondoren.

Enpresatik kanpoko prebentzio zerbitzu gisa aritzen diren entitate espezializatuek, enpresen prebentzio sistemaren auditoretza egiten duten pertsonak edo entitateek eta lan-arriskuen prebentzioaren arloko prestakuntza garatu edo egiaztatzeko ziurtagarritako entitateek egindako arau-hauste astunengatik eta oso astunengatik jarri ahalko zaizkien isunez gain —artikulu honek jasotzen baititu—, gisa horretan aritzeko lan-agintaritzak eman dien egiaztapena baliogabetu ahalko da.

3. Gizarte Segurantzaren arloko zehapenak gertakari berdinekin zerikusia duten arau-hauste eta likidazio akten ondoriozkoak izan eta aldi berean ezartzen direnean, ehuneko 50 murriztuko dira, baldin eta arau-hauslea egindako likidazioarekin ados badago eta haren zenbatekoa dagokion epean sartzen badu. Murrizketa automatiko hori soilik egin ahalko da likidazioaren zenbatekoa hasiera batean proposatutako zehapena baino handiagoa bada.

4. Kooperatiben arloko arau-hausteak honela zehatuko dira:

a) Arau-hauste arinak: isuna, 450 eta 905 euro bitartekoa.

b) Arau-hauste astunak, 906 eta 4.545 euro bitartekoa.

c) Arau-hauste oso astunak: 4.546 eta 45.504 euroko bitartekoa».

Azken xedapenetako bigarrena. *Lan Arloko Jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legea aldatzea.*

Lan Arloko Jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legea aldatu eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Bigarren liburuko II. tituluaren barruko V. kapituluaren 4. ataleko izenburua aldatu eta honela geratzen da idatzita:

«4. atala. Mugikortasun geografikoa, lan-baldintzen funtsezko aldaketak, urrutiko lana, eta ekonomia, teknika, antolaketa edo ekoizpeneko arrazoiak bitarteko edo ezinbesteko arrazoiak medio kontratua etetea eta lanaldia murriztea».

Bi. 138 bis artikulua gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«138 bis artikulua. *Urrutiko lanerako irispideari, hura aldatzeari eta lan presentzialera itzultzeari buruzko erreklamazioen izapidetzea.*

1. Urrutiko lanerako irispideari, hura aldatzeari eta lan presentzialera itzultzeari buruzko erreklamazioetarako prozedurak arau hauek bete beharko ditu:

a) Langileak hogeit hamar egun balioduneko epea izango du lan-arloko epaitegian demanda aurkezteko, enpresak jakinarazten dionetik hark egindako proposamenarekin ados ez dagoela edo proposamenari uko egiten diola.

b) Jurisdikzio organoak presazko txostena eskatu ahal izango dio Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileari; horretarako, demandaren eta harekin batera dauden dokumentuen kopia igorriko dio. Txostena langileak egindako proposamenari buruz enpresak jakinarazitako ezezko edo desadostasunari buruzkoa izango da, baita gainerako inguruabarrei buruzkoa ere.

c) Prozedura presazkoa izango da, eta lehenetsunez izapidetuko da. Ikustaldi-ekitaldia ezarri beharko da demanda onartu eta hurrengo bost egunetan. Epaia hiru eguneko epean emango da. Ebazpen horren aurka ezin izango da errekurtsorik jarri, salbu eta kalte-ordain bat emateko uzia metatu denean, eta kalte-ordain horren zenbatekoa dela-eta erregutze-errekurtsioa jar badaiteke; kasu horretan, erabakia betearazlea izango da epaia ematen denetik.

2. Urrutiko lanari buruzko erreklamazioaren arrazoiak loturaren bat duenean familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko eskubidea, legean zein hitzarmen kolektiboan aitortutakoa, egikaritzearekin, 139. artikuluan ezarritako prozedura bete beharko da».

Azken xedapenetako hirugarrena. *Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina aldatzea.*

Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina aldatu eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Aldatu egiten da 13. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«13. artikulua. *Urrutiko lana.*

Langileek urrutiko lana egin ahal izango dute Urrutiko Lanaren 10/2020 Legean aurreikusitako baldintzetan».

Bi. Aldatu egiten da 23. artikuluen 1. apartatuko a) letra, eta honela geratzen da idatzita:

«a) Azterketetara aurkezteko beharrezko baimenak jasotzeko; eta titulu akademiko edo titulu profesionalen bat lortzeko ikasketak erregulartasunez egiten

ari bada, lan-txanda eta urrutiko lana eskuratzea aukeratzeko lehentasuna ere badu, enpresako araubidea txandetakoa bada eta postua edo eginkizunak bateragarriak badira lan egiteko modu horrekin».

Hiru. Aldatu egiten da 37. artikulua 8. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«8. Genero-indarkeriaren edo terrorismoaren biktima diren langileek babeserako edo gizarte-laguntza osoa eraginkortasunez jasotzeko eskubidea izango dute; baita lanaldia murriztekoa, soldata proportzioan jaitsita, edota lanaldia berrantolatzeak ere, lan-ordutegia egokituz, lan-ordutegi malgua izanez, edo enpresan lanaldia antolatzeak erabiltzen diren beste modu batzuek baliatuz. Era berean, beren lana guztiz edo partzialki urrutitik egiteko edo egiteari uzteko —hori bada ezarritako sistema— eskubidea izango dute, baina, bi kasuetan, zerbitzuak emateko modalitate hori bateragarria bada pertsonak betetzen dituen lanpostuarekin eta eginkizunekin.

Hitzarmen kolektiboetan, enpresaren eta langileen legezko ordezkarien arteko akordioetan, edo enpresaren eta kaltetutako langileen arteko akordioetan, kasu zehatz horietarako ezarritakoarekin bat egikaritu ahalko dira eskubide horiek. Hitzarmen kolektiboetan edo akordioetan eskubideak egikaritzeko baldintzei buruz ezer xedatu ez bada, aurreko zenbakian zehaztutako arauak aplikatuko dira, desadostasunak konpontzeari buruzkoak barne».

Azken xedapenetako laugarrena. *Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorra aldatzea.*

Beste letra bat eransten zaio Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorren 54. artikulua 2. apartatuari, h) letra, zeinak eragina izango baitu lege hau indarrean jartzen denetik aurrera, bai eta indarraldi zehaztugabea ere; honela dio:

«h) Jarduera uzteagatiko babes-sistemara bideratutakoak».

Azken xedapenetako bosgarrena. *Sinadura Elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legea aldatzea.*

Sinadura Elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legearen 13. artikulua 6. apartatua gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«6. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioaren titularraren agindu bidez zehaztuko dira ziurtagiri kualifikatu baten eskatzailearen nortasuna egiaztatzeak aplikatu beharreko baldintza eta betekizun teknikoak eta, hala badagokio, beste ezaugarri espezifiko batzuk, presentzia fisikoaren pareko segurtasuna ematen duten beste identifikazio-metodo batzuk erabiliz».

Azken xedapenetako seigarrena. *Jokoa arautzeko maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen lehenengo xedapen iragankorra aldatzea.*

Jokoa arautzeko maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen lehenengo xedapen iragankorren lehen paragrafoa aldatu eta honela geratzen da idatzita:

«Jokoaren Batzorde Nazionalerako aurreikusitako eskumenak Kontsumo Ministerioko Jokoa Antolatzeak Zuzendaritza Nagusiak egikaritzeko ditu, lege honen 49. artikuluan aipatzen diren tasen kudeaketarekin eta bilketarekin lotutakoak izan ezik, horiek Zerga Administrazioak Estatu Agentziak egikaritzeko baititu».

Azken xedapenetako zazpigarrena *Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala sortzeko ekainaren 4ko 3/2013 Legea aldatzea.*

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala sortzeko ekainaren 4ko 3/2013 Legea aldatu eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Bigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatua honela geratzen da idatzita:

«3. Ordenamendu juridikoko edozein arauk Jokoaren Batzorde Nazionalari egiten dizkion aipamenak Kontsumo Ministerioko Jokoa Antolatzeko Zuzendaritza Nagusiari egiten zaizkiola ulertuko da, zuzendaritza horrek ordeztu baitu Jokoaren Batzorde Nazionala eta haren eskumenak bere gain hartu, betiere hamargarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzetan».

Bi. Hamargarren xedapen gehigarria honela geratzen da idatzita:

«Hamargarren xedapen gehigarria. *Kontsumo Ministerioko Jokoa Antolatzeko Zuzendaritza Nagusiak eta Zerga Administrazioako Estatu Agentziak beren gain hartzen dituzten jokoaren arloko eginkizunak.*

Kontsumo Ministerioko Jokoa Antolatzeko Zuzendaritza Nagusiak bere gain hartuko ditu desagertutako Jokoaren Batzorde Nazionalari Jokoa arautzeko maiatzaren 27ko 13/2011 Legeak esleitzen dizkion xedea, eginkizunak eta eskumenak, aipatutako legearen 49. artikuluan aipatzen diren tasen kudeaketarekin eta bilketarekin lotutakoak izan ezik, horiek Zerga Administrazioako Estatu Agentziak egikaritutako baititu».

Azken xedapenetako zortzigarrena. *Trenbide Sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legea aldatzea.*

Trenbide Sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legea aldatu eta hogeita batgarren xedapen gehigarria gehitzen zaio; honela geratzen da idatzita:

«Hogeita batgarren xedapen gehigarria. *Trenbide-operazioen arloko salbuespenak larrialdi-egoeretan.*

Trenbide Segurutasuneko Estatu Agentziako zuzendariari ahalmena ematen zaio, bere eskumenen esparruan, lizentzien, ziurtagirien, gaikuntzen edo baimenen titularrei edo eskatzaileei ofizioz salbuespen espezifikoak eman diezaien trenbide-jardueraren arloan —Europar Batasunak arautu ez dituen eremuetan— aplikatzeko den araudia ez betetzeko, baldin eta ustekabeko egoera larriak edo premia operatibo larriak gertatzen badira eta baldintza hauek guztiak betetzen badira:

- a) Egoera edo behar horiei modu egokian aurre egin ezin izatea aplikatu beharreko baldintzak betez.
- b) Behar izanez gero, segurtasuna bermatzea arintze-neurriak aplikatuz.
- c) Merkatuko baldintzen edozein motatako balizko desitxuratzea arintzea, ahal den neurrian, salbuespena ematearen ondorioz.
- d) Salbuespenaren irismena eta iraupena behar-beharrezkoa denera mugatuta egotea, eta salbuespena diskriminaziorik eragin gabe aplikatzea.

Era berean, salbuespen horiek onartu ahal izango dira, baldin eta aurreko paragrafoan aipatutako baldintza guztiak betetzen badira, eta interesdunek alde aurretik behar bezala arrazoitutako eskaera egiten badute, non ustekabeko premiazko inguruabarrak edo premiazko beharrezko operatiboak zehaztuko baitituzte, eta jarduteko segurtasun-maila baliokidea ezartzea ahalbidetzen duten neurriak proposatu».

Azken xedapenetako bederatzigarrena. *Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea aldatzea.*

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen azken xedapenetako zazpigarrena aldatu eta honela geratzen da idatzita:

«Azken xedapenetako zazpigarrena. *Indarrean jartzea.*

Lege hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta urtebetera jarriko da indarrean.

Hala ere, ahalordetzeen erregistro elektronikoari, erregistro elektronikoari, enplegatu publiko gaituen erregistroari, Administrazioaren sarbide-puntu nagusi elektronikoari eta artxibo elektroniko bakarrari buruzko xedapenek 2021eko apirilaren 2tik aurrera izango dituzte ondorioak».

Azken xedapenetako hamargarrena. *Ekonomiaren arloan eta osasun publikoa babesteko presako neurri batzuk hartzen dituen martxoaren 10eko 6/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Ekonomiaren arloan eta osasun publikoa babesteko presako neurri batzuk hartzen dituen martxoaren 10eko 6/2020 Errege Lege Dekretuaren bosgarren artikulua aldatu eta honela geratzen da idatzita:

«Bosgarren artikulua. *COVID-19 birusaren ondorioz langileak bakartuta edo kutsatuta egon diren aldiak edo haiek bizi diren edo lantokia duten udalerritik irteteko dituzten mugak lan-istripuarekin parekatutako egoeratzat hartzea salbuespen gisa.*

1. Osasun publikoa babesteko, salbuespena eginez, lan-istripuarekin parekatutako egoeratzat hartuko dira COVID-19 birusaren ondorioz langileak bakartuta edo kutsatuta egon diren aldiak, Gizarte Segurantzako sistemaren aldi baterako ezintasunagatiko prestazio ekonomikoari lotutako kontuetarako soilik, salbu eta frogatzen bada langilea lana egitean kutsatu dela gaixotasunaz urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko 156. artikuluan ezarritako baldintzetan; kasu horretan, lan-istripuztat hartuko da.

Salbuespenez, babes hori emango zaie COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua aplikatzen ez den jardueretan zerbitzuak emateko beren udalerritik beste batera joan behar duten langileei ere, baldin eta agintari eskudunak erabaki badu langile horiek bizilekua duten udalerrira edo enpresak lantokia —langilearen bizilekuaz bestelakoa— duen udalerrira pertsonak sartzera edo hartatik pertsonak irtetea mugatzea, agintari eskudunak berariaz ukatu badie langile horiei lekualdatzeko aukera, langileok ezin badute beren lana telematikoki egin zerbitzuak ematen diharduten enpresari edo langileei berei egotzi ezin zaizkien arrazoiengatik eta langileok ez badute beste prestazio publikorik jasotzeko eskubiderik. Dena delako udalerrira sartzeko edo hartatik irteteko murrizketak hasten direnetik aurrera izango ditu ondorioak neurriak, eta beharrezkoa izango da baja-agiria izatea.

Langileak bizilekua edo enpresak lantokia duen herria mugatzeko akordioa eta lekualdatzeko aukera ukatu izana egiaztatzeko, bizilekuko udalak edo, kasua bada, mugatzeak ukitutako lantokiak emandako ziurtagiria dagokion osasun-zerbitzu publikoko organoan aurkeztu beharko da.

Era berean, lana telematikoki egiteko ezintasuna enpresaren ziurtagiri baten bidez egiaztatuko da, edo, norberaren konturako langileen kasuan, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez, osasun-zerbitzu publikoko organo berean aurkeztuta.

Bizilekua lantokia dagoen udalerritik kanpo duten besteren konturako langileen kasuan, aurreko paragrafoan aurreikusitakoaz gain, honako hauek egiaztatu beharko dira:

- a) Langilearen bizilekua, dagokion errolda-ziurtagiriaren bidez.
- b) Langileak mugatzearen eraginpeko udalerriko lantokian egiten duela lan, enpresaren ziurtagiri egokiaren bidez.
- c) Enpresak ez duela lantokia itxi, enpresaren ziurtagiri egokiaren bidez.

2. Salbuespenezko prestazio horren iraupena baja-agiriak eta dagokion sendagiriak zehaztuko dute.

Agintari eskudunak erabaki badu, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jarri aurretik, langileek bizilekua duten udalerriko edo zerbitzuak ematen dituzten enpresak lantokia duen udalerriko irteerak edo sarrerak mugatzea, eta langileak martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege Dekretuaren 1. artikuluan aipatzen diren besteren konturako langile badira, baja-agiri bat emango da, mugikortasuna mugatzearen hasiera-datatik aurrerako ondorioak dituena, eta sendagiri bat, 2020ko martxoaren 29tik aurrerako ondorioak dituena. Martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez, berreskuratzeko baimen ordaindu bat arautzen da besteren kontura diharduten eta funtsezko zerbitzuak ematen ez dituzten langileentzat, COVID-19aren kontrako borrokan biztanleriaren mugikortasuna murrizteko asmoz.

Norberaren konturako langileak edo autonomoak badira, eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jarri aurretik hartutako murrizketak mugatu egiten badu beren bizilekua duten udalerritik irtetea edo, bizilekua beste batean izanda, udalerrian sartzea mugatuta badute eta, ondorioz, beren jarduera egitea erabat eragozten bazaie, prestazioa jasotzeko eskubideak baja-agirian jasotako mugatzea hasten den egunetik hura amaitu arte iraungo du, eta ezin izango du iraun alarma-egoera amaitzen den egunetik aurrera.

Aldi baterako ezintasunagatik sorospen hori bateraezina da jaso diren soldatekin eta Gizarte Segurantzaren beste edozein prestazio ekonomiko jasotzeko eskubidearekin, kontingentzia arruntengatik edo profesionalengatik aldi baterako ezintasuna barne. Kasu horietan, artikulua honetan aurreikusitako subsidioa ez den Gizarte Segurantzaren prestazioa jasoko da.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren ondorioetarako, langileak osasun-zerbitzu publikoko dagokion organoari aurkeztu beharko dio soldatarik jasotzen ez duela egiaztatzen duen enpresaren ziurtagiria.

3. Gertaera eragilea izan den egunean Gizarte Segurantzako edozein araubidetan alta emanda dagoen norberaren edo besteren konturako langileak sor dezake prestazio hau jasotzeko eskubidea.

4. Gertaera eragilearen data izango da langilea bakartzea, haren mugimenduak murriztea edo haren gaixotasuna zehaztea erabakitzen den eguna, nahiz eta baja-agiria data horren ondoren egin».

Azken xedapenetako hamaikagarrena. *Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Bat. Aldatu egiten dira 7. artikulua 1. eta 2. apartatuak, eta honela geratzen dira idatzita:

«7. artikulua. *Errenta eskuratzeko betekizunak.*

1. Onuradun guztiek, bizikidetzaren unitate batean egon edo ez, betekizun hauek bete beharko dituzte:

a) Espainian legezko eta benetako bizilekua izatea, eta hura eskabidea aurkeztu aurreko urtean zehar, gutxienez, etenik gabe eta modu jarraituan eduki izana izatea. Epe hori ez da eskatuko honako hauei dagokienez:

- 1.a Jaiotzagatik, adopzioagatik, adopzio aurreko zaintzagatik edo familia-harrerera iraunkorragatik bizikidetzaren unitatean sartutako adingabeak.
- 2.a Gizakien salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktimak.
- 3.a Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak.

Prestazio horretarako eskubideari eustearen ondoretarako, pertsona batek Espainian ohiko bizilekua duela joko da —atzerriko egonaldiak izan arren—, baldin eta urte naturalean egonaldi horiek laurogeita hamar egun naturaletik gorakoak ez badira edo behar bezala justifikatutako gaixotasun-kausak ekarri badute Espainiako lurraldetik kanpora joatea.

b) Kalteberatasun ekonomikoko egoeran egotea, errenta, diru-sarrerak edo ondare nahikorik ez izateagatik, 8. artikuluan ezarritakoaren arabera.

c) Erregelamenduz zehazten diren eta indarrean dauden pentsio eta prestazio publikoak —horietarako eskubidea izan badezakete— eskatu izana. Nolanahi ere, salbuetsita egongo dira ordainsari sozialak, gizarteratzeko gutxieneko errentak edo autonomia erkidegoek emandako antzeko gizarte laguntzak.

2. 4.1.b) artikuluan aipatzen diren onuradunek, eskabidea egiten duten egunean 30 urtetik beherakoak badira, Espainian izan beharko dute legezko eta benetako bizilekua, eta egiaztatu beharko dute modu independentean bizi izan direla adierazitako datuen aurreko hiru urteetan, gutxienez.

Pertsona bat modu independentean bizi izan dela ulertuko da, baldin eta egiaztatzen badu, eskabidea aurkeztu aurreko hiru urteetan, ez dela bizi bere gurasoen, tutoreen edo harreragileen bizilekuan, eta, aldi horretan, gutxienez hamabi hilabetez, modu jarraituan nahiz etenekin, altan egon bada Gizarte Segurantzaren sistema osatzen duen edozein araubidetan, Estatuko Klase Pasiboena barne, edo Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Autonomoen Araubide Bereziaren ordezkotako gizarte-aurreikuspeneko mutualitate batean.

Betekizun hori ez zaie eskatuko genero-indarkeriaren biktima izateagatik ohiko bizilekua utzi duten pertsonari, banantze- edo dibortzio-izapideak hasi dituztenei edo erregelamendu bidez zehaztu daitezkeen beste inguruabar batzuetan daudenei».

Bi. Aldatu egiten dira 19. artikuluan 4., 5., 6. eta 7. apartatuak, bai eta 8. apartatua gehitu ere, eta honela geratzen dira idatzita:

«4. Bizikidetzaren unitatea dagoela egiaztatzeko, familia-liburua, erregistro zibilaren ziurtagiria eta udal-erroldean etxebizitza berean inskribatutakoei buruz dauden datuak aurkeztu beharko dira. Ondorio horietarako, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak Estatistikako Institutu Nazionalaren udal-erroldeak koordinatzeko datu-baserako irispidea izango du, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Hala ere, hartatik ezin bada ondorioztatu datu horiek prestazioaren eskabidean jasotako datuekin bat datozeela, kasu bakoitzean eskatutako aldiaren erroldatze-ziurtagiri historikoa eta kolektiboa aurkezteko eskatuko da, bizikidetzaren unitateko kideak bizi diren edo bizi izan diren bizilekuei buruzkoa, udalak emana Toki Erakundearen Biztanleriari eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamenduaren 83.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Estatistikako Institutu Nazionalatik lortutako datuak eta, hala badagokio, aipatutako errolda-ziurtagiria ere baliagarriak izango dira 6.2.c) artikuluan aipatzen den bizikidetzaren unitatea dagoela egiaztatzeko, edo 4.1.b) artikuluan aipatzen den eskatzailea bakarrik bizi dela edo kide ez den bizikidetzaren unitate batekin batera bizi dela egiaztatzeko.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoaren arabera, udal-eroldari buruzko datuen ondorioetarako, ez da beharrezkoa izango eskatzailearen bizilekuan erroldatutako pertsonen baimena izatea.

Izatezko bikotea osatu izana egiaztatzeko, bikoteak bizilekua duen tokiko autonomia-erkidegoan edo udalean hartarako berariaz den erregistroren batean inskribatu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, edota bikotea eratu izana jasotzen duen dokumentu publiko bat. Bai aipatutako izen-ematea, bai kasuko dokumentu publikoa formalizatu izana prestazioaren eskabidea aurkezten den eguna baino bi urte lehenagotik eginak izan beharko dira, gutxienez.

Banantze- edo dibortzio-izapideen hasiera, edo horien existentzia, demanda aurkeztuz edo dagokion ebazpen judizialaren bidez egiaztatuko da.

5. Estatistikako Institutu Nazionalak emandako datuen bidez egiaztatuko da eskatzailea gutxienez hiru urtez modu independentean bizi izan dela gurasoen, tutoreen edo harreragileen bizilekua ez den beste batean, 7.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, edo, kasua bada, errolda-ziurtagiri historiko eta kolektiboaren bidez, zeinetan eskatzailearen bizilekuan aldi horretan erroldatutako pertsona guztiak jasoko baitira, 4. apartatuan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

Udal-eroldari buruzko datuen ondorioetarako, aurreko zenbakian aurreikusitakoarekin bat etorritik, ez da eskatzailearen bizilekuan erroldatutako pertsonen baimenik beharko.

6. Genero-indarkeriaren biktima izatearen baldintza egiaztatzeko, Genero-indarkeriaren aurka babes integrala emateko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 23. artikuluan ezarritako bideetatik edozein erabili ahal izango da.

Gizakien salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktimaren izaera egiaztatzeko, biktima horiei arreta integrala emateaz arduratzen diren zerbitzu publikoek edo gizarte-zerbitzuek txosten bat egin beharko dute; bestela, erregelamendu bidez zehazten den beste edozein egiaztatze-bide erabili ahal izango da.

7. Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazio ekonomikoa eskuratzeko eta mantentzeko errege lege-dekretu honetan diru-sarrerekin eta ondarearekin loturik ezarritako betekizunak erakunde kudeatzaileak egiaztatuko ditu, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaz eta Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako zerga-ogasunetatik bitarteko telematikoen bidez jasotako informazioaren arabera. Horretarako, ogasun publiko horietan egiaztapen- edo kontrol-jarduera hori egiten den ekitaldiaren aurreko ekitaldiari buruz dagoen informazioa hartuko da erreferentziaz, edo, halakorik ezean, administrazio publiko horietan dagoen informazio eguneratuena.

Eskabidean, interesdun bakoitzak berariaz emango dio baimena hura izapidetzen ari den administrazioari haren zerga-datuak eskura ditzan Zerga Administrazioako Estatu Agentziaz, autonomia-erkidegoetako organo eskudunetatik, Nafarroako Foru Ogasunetik edo Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundietatik eta Higiezinaren Katastroaren Zuzendaritza Nagusitik, Tributuei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 95.1.k) artikulua arabera edo, hala badagokio, aplikatzekoa den foru-araudiaren arabera.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da eragozpena izango legez xedatuta dagoen zerga-daten lagapenerako, zeinak helburu baitu Gizarte Segurantzaren prestazioak lortzeko eta baliatzeko iruzurrak aurkitzen laguntzea. Lagapen hori Tributuei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 95. artikulua 1.c) apartatuan edo, hala badagokio, aplikatzekoa den foru-araudian dago jasota.

8. Eskatzaileari ez zaio inoiz eskatuko Gizarte Segurantzaren Administrazioak bere kabuz ezagutu behar dituen gertaerak, datuak edo inguruabarrak egiaztatzeko, hala nola onuradunak Gizarte Segurantzaren sistemari dagokionez zer egoeratan dagoen edo bizikidetzaren unitateko kideek Gizarte Prestazio Publikoen Erregistroan jasota dagoen beste prestazio ekonomiko bat jasotzen duten».

Hiru. Aldatu egiten da 25. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«25. artikulua. *Izapidetzea.*

1. Prestazioaren eskabidea jaso ondoren, organo eskudunak, hura onartu aurretik, egiaztatuko du aurkeztutako eskabidean adierazitako datuen arabera bakarrik bizi diren onuradunek edo bizikidetzta-unitate bateko kide direnek 7.1.b) artikuluan aurreikusitako kalteberatasunaren betekizuna betetzen dutela.

Ez onartzeko ebazpenaren aurka, zeina 30 eguneko epean eman beharko baita, Gizarte Segurantzako prestazioen arloko alde aurreko administrazio-erreklamazioa aurkeztu ahal izango da, Lan Arloko Jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legearen 71. artikuluan ezarritakoaren arabera. Erreklamazio horren xedea ez-onartzearen arrazoiak arduratzea baino ez da izango.

Eskabidea onartzeak ez du eragotziko hura ezetsia izatea, baldin eta, prozedura bideratu bitartean, erakunde kudeatzaileak 7.1.b) artikuluan aurreikusitako kalteberatasun-betekizuna ez dela bete egiaztatzen duten egiaztapen berriak egiten baditu.

2. Eskaera izapidetzea onartu ondoren, administrazio-prozeduraren instrukzioa hasiko da prestazioa aitortzeko erabakigarriak diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

3. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak ebazpena emango du eta eskatzaileari jakinaraziko dio, eskabidea bere erregistroan sartu eta gehienez ere sei hilabeteko epean.

Epe hori iragan eta esanbidezko ebazpenik jakinarazi ez bada, ezetsi egin dela ulertuko da.

Egoitzarik ez duten baina udalek udal-eroldaren kudeaketari buruz emandako jarraibide teknikoetan jasotakoaren babespean errolatuak dauden pertsonen kasuan, jakinarazpenak udalerraren gizarte zerbitzuetan egingo dira, edo, kasua denean, pertsona interesdun horiek errolatuta agertzen diren entitatearen egoitzan edo zentroan.

4. Eskaera egin ondoren interesdunak ez badu aurkeztu 24.2 artikuluan aurreikusitako erantzukizunpeko adierazpenean eskatutako dokumentazioa, erakunde kudeatzaileak hori egin dezan eskatuko dio ebazpena eman aurretik. Kasu horretan, prozedura gehienez ere hiru hilabetez eten egingo da. Epe hori igaro eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu ez badu, prozedura iraungi egingo da».

Lau. Aldatu egiten da 33. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«33. artikulua. *Onuradunen betebeharrak.*

1. Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren titularrek betebeharrak hauek izango dituzte prestazioa jasotzen duten bitartean:

a) Beharrezko dokumentazioa eta informazio zehatza ematea, betekizunak egiaztatzeko eta prestazioa jasotzen jarraitzeko, bai eta jakinarazpenak eta komunikazioak jasotzen direla bermatzeko ere.

b) Prestazioa aldatzea, etetea edo azkentzea ekar dezakeen edozein aldaketa edo egoeraren berri ematea, horiek gertatu eta hogeita hamar egun naturaleko epean.

c) Titular horiengan edo bizikidetzta-unitateko beste edozein kiderengan eragina duen eta udal eroldan egiten den edozein bizileku- edo egoera-aldaketaren berri ematea, aldaketa gertatu eta hogeita hamar egun naturaleko epean.

d) Ez zegozkien prestazioen zenbatekorik jasoz gero, zenbateko hori itzultzea.

e) Erakunde kudeatzaileari jakinaraztea, alde aurretik, titularrak eta bizikidetzta-unitateko kideek atzerrira egingo dituzten irteerak, urte natural bakoitzean laurogeita hamar egun natural —jarraian edo ez— baino gehiagokoak badira, eta,

hala badagokio, Espainiako lurraldean ez dagoela justifikatzea 7.1.a) artikuluen azken paragrafoan aurreikusitakoaren arabera.

f) Urtero pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokion aitortpena aurkeztea.

g) Lanean ari ez badira eta adinez nagusiak edo adingabeko emantzipatuak badira, prestazioa ematen duen ebazpena jakinarazi eta hurrengo sei hilabeteetan enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta daudela egiaztatzea, kasu hauetan izan ezik:

1.a Ikasketa arautuak egiten egotea eta 28 urtetik beherakoa izatea. Kasua hori bada, onuradunak 28 urte betetzen dituen egunean hasiko da enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta dagoela egiaztatzeko sei hilabeteko epea.

2.a Mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileen Gizarte Segurantza arautzen duen maiatzaren 11ko 615/2007 Errege Dekretuan ezarritakoaren araberrako hitzarmen berezia izenpetua izatea.

3.a Ezintasun iraunkor absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik kotizaziopeko pentsioa, kotizazio gabeko baliaezintasunagatik pentsioa edo kotizaziopeko erretiroagatik pentsioa jasotzen aritzea, edo 65 urte beteta izatea.

4.a Desgaitasun bat izatea, gutxienez ehuneko 65eko graduan.

5.a Mendekotasun-egoera aitortua izatea Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasuna duten pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean xedatutakoaren arabera.

Enplegu-eskatzailearen egoera egiaztatzeko, administrazio eskudunak horretarako emandako agiria aurkeztu beharko da, edo, bestela, erakunde kudeatzaileak horretarako gaitutako bitarteko elektronikoak erabili beharko dira.

h) Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioa laneko errentekin edo 8.4 artikuluan xedatutakoarekin bat datorren jarduera ekonomikoarekin bateragarri eginez gero, bateragarritasun hori eskuratzeko eta mantentzeko ezarritako baldintzak betetzea.

i) Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak sustatzen dituen inklusio-estrategietan, 28.1 artikuluan jasota baitaude, parte hartzea ezartzen diren baldintzekin bat.

j) Erregelamenduz ezar daitekeen beste zeinahi betebeharrak betetzea.

2. Bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsonen betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Titularraren heriotzaren berri ematea.

b) Administrazioari jakinaraztea emandako prestazioaren amaiera desitxuratzeko duen edozein gertaera.

c) Urtero pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokion aitortpena aurkeztea.

d) Aurreko zenbakiak titularrari ezartzen dizkion betebeharrak betetzea, hain zuzen, titularrak, arrazoiak edozein dela ere, betetzen ez dituenak.

e) Lanean ari ez badira eta adinez nagusiak edo adingabeko emantzipatuak badira, prestazioa ematen duen ebazpena jakinarazi eta hurrengo sei hilabeteetan enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta daudela egiaztatzea, aurreko zenbakian titularrantzat adierazitako salbuespen eta egiaztapen modu berberekin.

f) Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioa laneko errentekin edo 8.4 artikuluan xedatutakoarekin bat datorren jarduera ekonomikoarekin bateragarri eginez gero, bateragarritasun hori eskuratzeko eta mantentzeko ezarritako baldintzak betetzea.

g) Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak sustatzen dituen inklusio-estrategietan, 28.1 artikuluan jasota baitaude, parte hartzea ezartzen diren baldintzetan.

h) Erregelamenduz ezar daitekeen beste zeinahi betebeharrak betetzea».

Bost. Lehenengo xedapen iragankorra aldatu eta honela geratzen da idatzita:

«Lehenengo xedapen iragankorra. *Bizitzeko gutxieneko diru-sarreretakoko prestazio ekonomiko iragankorrak 2021eko abenduaren 31ra arte.*

1. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak, 2020. urtean zehar, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazio iragankorra aitortuko die beren ardurapean duten seme-alaba edo adingabe bakoitzeko Gizarte Segurantzako sistemak diru-esleipena egiten dien egungo onuradunei, baldin eta, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den egunean, hurrengo apartatueta azaltzen diren betekizunak betetzen badituzte eta bizitzeko gutxieneko diru-sarrera iragankorraren zenbatekoa haiek jasotzen duten diru-esleipenaren zenbatekoa beste edo handiagoa bada.

2. Prestazio iragankorra jasotzeko betekizunak honako hauek izango dira:

a) Desgaitasunik gabeko edo ehuneko 33tik beherako desgaitasuna duen seme-alaba edo adingaberen bat bere ardurapean izateagatik diru-esleipen baten onuraduna izatea.

b) Bizikidetzaren unitate bateko kidea izatea. Unitate hori honako hauek soilik osatuko dute: desgaitasunik gabeko edo ehuneko 33tik beherako desgaitasuna duen seme-alaba edo adingaberen bat bere ardurapean izateagatik diru-esleipen baten onuraduna denak, beste gurasoak —elkarrekin bizi badira—, eta seme edo alabaren bat ardurapean izateagatik esleipen hori eragin duten ardurapeko seme-alabek edo adingabeek.

c) Aurreko apartatuan aipatutako bizikidetzaren unitatea kalteberatasun ekonomikoko egoeran egotea, nahikoa ondare, errenta edo diru-sarrera ez izateagatik errege lege-dekretu honen 8. artikuluan ezarritakoaren arabera.

d) Jasotzen den diru-esleipena edo horien guztien batura, esleipenak bat baino gehiago badira, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioaren zenbatekoa baino txikiagoa izatea.

3. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak, halaber, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazio iragankorra aitortuko du, baldintza hauek betetzen direnean:

a) Desgaitasunik gabeko edo ehuneko 33tik beherako desgaitasuna duen seme-alaba edo adingaberen bat bere ardurapean izateagatik diru-esleipen baten onuraduna izatea.

b) Estatistikako Institutu Nazionalak azterketa- eta analisi-helburuetarako Zerga Administrazioako Estatu Agentziari aldizka lagatzen dizkion biztanleriari buruzko datu-baseetan ageri den bizikideen guztizko kopurua 2.b) apartatuan xedatutako bizikidetzaren unitateko kideen kopurua baino handiagoa denean, 3. apartatu honetan aurreikusitako ondorioetarako baino ez, bizikidetzaren unitatea honako hauek osatuko dute soilik: desgaitasunik gabeko edo ehuneko 33tik beherako desgaitasuna duen seme-alaba edo adingaberen bat bere ardurapean izateagatik diru-esleipen baten onuraduna denak, beste gurasoak —elkarrekin bizi badira—, eta seme-alabaren bat ardurapean izateagatik esleipen hori eragin duten ardurapeko seme-alabek edo adingabeek.

c) Aurreko apartatuan aipatutako bizikidetzaren unitatea kalteberatasun ekonomikoko egoeran egotea, nahikoa ondare, errenta edo diru-sarrera ez izateagatik errege lege-dekretu honen 8. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Beti ere, gainera, bizikide guztien errenten eta diru-sarreraren baturak ez badu gaintzen bizikidetzaren unitate bat izanez gero legokiekeen errenta bermatuaren hileko zenbatekoa, errege lege-dekretu honetan ezarritakoaren arabera.

d) Gizarte Segurantzako sistemak ardurapeko seme-alaba edo adingabe bakoitzeko egiten duen diru-esleipena —edo, diru-esleipen bat baino gehiago badira, horien guztien batura— apartatu honetan ezartzen den prestazio iragankorraren zenbatekoa baino txikiagoa izatea.

4. Egiaztatzeko 2. apartatuko b) letran eta 3. apartatuko b) letran eta c) letraren bigarren paragrafoan aurreikusitakoa betetzen dela, eta horretarako baino ez, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak, Estatistikako Institutu Nazionalaren alde aurreko baimenarekin eta interesdunen baimenik gabe, biztanleriaren datu-baseetan jasota dagoen etxeetako pertsona multzoei buruzko informazioa lagako du; hain zuzen, Estatistikako Institutu Nazionalak Zerga Administrazioako Estatu Agentziari azterketak eta analisiak egiteko aldizka lagatzen dizkion datu-baseetan eskuragarri dagoen informazioa. Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioko Inklusioko eta Gizarte Aurreikuspeneko Helburu eta Politiken Idazkaritza Nagusiak informazio hori bakarrik erabiliko du bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioa xedapen iragankor honetan ezarritako baldintzetan jasotzeko eskubidea duten onuradunak zehazteko behar diren jarduketak egiteko.

5. Egiaztatzeko 2.c) eta 3.c) apartatueta ezarritakoa betetzen dela, eta horretarako baino ez, 2.b) eta 3.b) apartatueta deskribatutako bizikidetz-unitateen diru-sarrerei eta ondareari buruz behar beharrezkoa den informazioa eskatuko dio Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, eta hark bidali egingo dio, haren bitartez zehaztu ahal izateko zein diren bizitzeko gutxieneko diru-sarrerak xedapen iragankor honetan ezarritako baldintzen arabera jasotzeko eskubidea duten onuradunak. Informazio hori adierazitako helbururako eta Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren arteko informazio-trukerako baino ez da erabiliko, interesdunen baimena eskatu beharrik gabe.

6. Baldin eta 2.b) eta 3.b) apartatueta deskribatutako bizikidetz-unitateek bizilekua Nafarroako Foru Komunitatean edo Euskal Autonomia Erkidegoan badute, ulertuko da aurreko paragrafoan Zerga Administrazioako Estatu Agentziari buruz egindako aipamena Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako zerga-ogasunei buruzkoa dela, hurrenez hurren. Kasu horietan, prestazioak aitortzeko, kasuan kasuko foru lurraldeetako zerga ogasunek hura aitortzeko behar den informazioa bidali beharko dute.

7. Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazio iragankorrak bateraezinak izango dira desgaitasunik gabeko edo ehuneko 33tik beherako desgaitasuna duen ardurapeko seme-alaba edo adingabe bakoitzeko diru-esleipenarekin, eta prestazio hori etenda geratuko da haiek indarrean dauden bitartean.

8. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak xedapen iragankor honen 2. eta 3. apartatueta xedatutako betekizunak betetzen dituzten onuradunei jakinaraziko die, batetik, kasuko prestazio iragankorrerako eskubidea aitortzen zaiela eta, bestetik, prestazio hori jasotzea edo ordura arte beren ardurapeko seme-alaba edo adingabeengatik jaso duten diru-esleipena jasotzea aukeratzeko eskubidea dutela.

9. Kasuko prestazio iragankorrari buruzko ebazpena jakinarazi eta hogeita hamar egun naturaleko epean, interesdunak baliatu ahal izango du bere ardurapeko seme-alaba edo adingabe bakoitzeko diru-esleipena kobratzen jarraitzea aukeratzeko duen eskubidea. Aukera horrek kasuko prestazio iragankorraren ondorio ekonomikoen datatik aurrera izango ditu ondorioak, eta, hala badagokio, dagokion erregularizatzeko ekonomia egingo da.

Aukera-eskubidea ez badu adierazitako epean baliatzen, kasuko prestazio iragankorra jasotzea aukeratzeko duela ulertuko da.

10. Behin prestazio iragankorrerako eskubidea aitortuta, bizikidetz-unitatea aldatzen bada, errege lege-dekretu honetan aurreikusitakoa aplikatuko da jakinarazteko betebeharrari, betekizunak betetzeari eta prestazioa berrikusteari dagokienez.

Nolanahi ere, prestazio iragankorraren zenbatekoa 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin eguneratuko da, aurreko ekitaldiko urteko diru-sarrera konputagarriak erreferentziatzen hartuta. Aurreko ekitaldiko diru-sarrera konputagarrien aldaketak prestazioa azkentzea eragiten badu, diru-sarrera horiei

dagokien urtearen hurrengo urteko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak aldaketa horrek. Bestela, ardurapeko seme-alaba edo adingabe bakoitzeko diru-esleipena berriz jasotzen hasiko da, baldin eta prestazio horren onuradun izateko betekizunak betetzen jarraitzen bada.

Prestazio iragankorrerako eskubidea bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioaren eskaera ebazten den egunean iraungiko da, edo, hala badagokio, haren ondorio ekonomikoen egunean, hura geroagokoa bada. Ondorio ekonomikoen data lehenagokoa bada eta bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioaren zenbatekoa prestazio iragankorrarena baino handiagoa bada, dagokion erregularizazioa egingo da.

11. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, prestazio iragankorra bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazio bilakatuko da, baldin eta errege lege-dekretu honetan ezarritako betekizunak betetzen badira eta interesdunak 2021eko abenduaren 31 baino lehen aurkezten badu Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak horretarako eskatzen dion dokumentazioa.

Kalteberatasun-egoera zehazteko, bizikidetzaren unitatea osatzen duten kide guztien ondarea, errenta eta diru-sarrerak hartuko dira kontuan, hain zuzen, arau honen 6. artikuluan aurreikusitako moduan osatutako bizikidetzaren unitateko kideenak.

Bestela, ardurapeko seme-alaba edo adingabe bakoitzeko diru-esleipena berriz jasotzen hasiko da, baldin eta prestazio horren onuradun izateko betekizunak betetzen jarraitzen bada.

12. Ardurapeko seme-alaba edo adingabe bakoitzeko Gizarte Segurantzaren sistemak egiten duen diru-esleipenaren onuradunek, baldin eta prestazio iragankorretako bakarra ere aitortzeko ebazpena jakinarazi ez bazaie eta xedapen iragankor honen 2. edo 3. apartatuan aurreikusitako betekizunak betetzen badituzte, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalan eskatu ahal izango dute prestazio hori aitortzeko. Prestazioa jasotzeko eskubidea aitortuz gero, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den egunetik aurrera izango ditu ondoreak, baldin eta 2020ko abenduaren 31 baino lehen aurkezten bada. Bestela, ondore ekonomikoak eskabidea aurkeztu eta hurrengo hilaren lehen egunetik aurrera izango dira.

13. Era berean, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak, 2020ko abenduaren 31ra arte, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioa aitortu ahal izango die autonomia-erkidegoek ezarritako gizartratze-errentetako edo oinarritzko errentetako baten onuradunei. Horretarako, autonomia-erkidegoek, baldin eta onuradunen datuak Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari bidaltzeko adostasuna lortu badute prestazioa aitortzearen ondorioetarako, Institutu horri jakinaraziko dizkiote onuradun izan daitezkeen pertsonak identifikatzeko eta prestazioa eskuratzeko betekizunak egiaztatzeko beharrezkoak diren datuak, informazio-trukerako erabilgarri dauden protokolo telematikoen bidez; informazio horren barruan egon beharko da kasuko autonomia erkidegoak eginiko ziurtagiria, zeinaz egiaztatuta geratuko baita 6. artikuluko ezarritakoaren arabera bizikidetzaren unitate bat eratzen dela, errege lege-dekretu honen 4., 5. eta 7. artikuluetan aipatzen diren betekizunak betetzen direla eta eskatzaileak baldintza horiek betetzen dituela frogatzen duten agiri guztiak eskura dituela, errege lege-dekretu honen 8. artikuluan aipatzen den kalteberatasun ekonomikoari dagokiona izan ezik, izan ere, hori Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak aztertuko baitu. Ziurtagiri hori nahikoa izango da erakunde kudeatzaileak baldintza horiek betetzat jo ditzan, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoek aipatutako institutuari dokumentazio guztia igortzeko duten betebeharra, gehienez ere sei hilabeteko epean, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera kontatuta, edo edozein erreklamazio ebazteko eskatzen zaionean.

Dokumentazioa egiaztatzeko ziurtagiria ematen bada eta, gerora, bidegabetzat jotzen den eta ordaindutako zenbatekoa berreskuratzerik ez dagoen prestazio bat —egiaztapen horretan oinarritua— aitortzen bada, eragindako kalteak ziurtagiria eman duen autonomia-erkidegoaren kontura izango dira.

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak ebatzitako espedienteak autonomia-erkidegoei jakinaraziko zaizkie ezarritako informatika-protokoloen bidez.

14. Xedapen hau aplikatzeko, prestazioa 2020ko maiatzaren 29tik martxan jartzeko beharrezkoak diren eragiketa teknikoak egiten hasi ahalko da, errege lege-dekretu honen 11.1 artikuluan ezarritakoaren arabera».

Sei. Bigarren xedapen iragankorra aldatu eta honela geratzen da idatzita:

«Bigarren xedapen iragankorra. *Eskabideak aurkeztea.*

Prestazio ekonomikoa jasotzeko eskabideak 2020ko ekainaren 15etik aurrera aurkeztu ahal izango dira. Eskabidea 2021eko urtarrilaren lehen baina lehen aurkezten bada, ondorio ekonomikoek 2020ko ekainaren 1era arteko atzeraeragina izango dute, baldin eta egiaztatzen bada data horretan eskuratzeko betekizun guztiak betetzen zirela. Egun horretan betekizunak betetzen ez badira, betekizunak betetzen diren hilaren hurrengoaren lehen egunean finkatuko dira ondorio ekonomikoak.

Eskaera 2020ko abenduaren 31 eta gero aurkezten bada, eskabidea aurkeztu eta hurrengo hilaren lehen egunean finkatuko dira ondorio ekonomikoak, errege lege-dekretu honen 11.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera».

Azken xedapenetako hamabigarrena. *Ekonomiaren suspertzea eta enplegua bultzatzeko premiazko neurrien uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Ekonomiaren suspertzea eta enplegua bultzatzeko premiazko neurrien uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege Dekretua aldatu eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Aldatu egiten da 44. artikuluen 1. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Dirulaguntzak kudeatzeko, erakunde laguntzaile batek edo batzuek esku hartu ahal izango dute; erakunde horiek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. eta 15. artikuluetan ezarritako betekizunak eta betebeharrak izango dituzte, bai eta hor xedatzen diren zereginak burutu beharra ere, eta lege horren 16. artikuluan xedatutakoa betez hautatuko dira. Erakunde laguntzailea aukeratuz gero, enpresa-erakunde publikoek eta Estatuko merkataritza-sozietateek bakarrik jardun ahal izango dute erakunde laguntzaile gisa. Erakunde laguntzaileak ordainketen aurrekontu-funtsak eman eta banatuko dizkie onuradunei».

Bi. Aldatu egiten da 46. artikuluen 4. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«4. Dirulaguntza emateko ebazpena eman ondoren, laguntza ordainduko zaio onuradunari; laguntzaren zenbatekoak bat etorri beharko du eskabidean adierazitakoarekin. Ordainketak onuradunak eskabideko galdera-sortan adierazitako banku-kontu batera eginiko transferentzien bidez egingo dira».

Hiru. Aldatu egiten da 47. artikuluen d) letra, eta honela geratzen da idatzita:

«d) Laguntzaren onuradunak gutxienez bi urtez mantendu beharko ditu ibilgailuaren titulartasuna eta matrikulazioa Espainian, dirulaguntza ematen denetik zenbatzen hasita, renting gisako eragiketen kasuan izan ezik, horien kasuan errentamendu-kontratuak gutxienez bi urteko iraupena ezarri beharko baitu hura indarrean jartzen denetik, eta 2020ko ekainaren 15a edo geroagoko datan formalizatua izan beharko du».

Lau. Lehenengo xedapen gehigarria aldatu eta honela geratzen da idatzita:

«Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioan 250 milioi euroko aparteko kreditu bat ematea onesten da. Kreditu hori aurrekontu-aplikazioen arabera banatuko da, honela:

20.09.422B.772. «Enpresa pribatuei. Renove Plana, Automobilgintzaren balio-katea bultzatzeko planaren barruan». 38 milioi euro.

20.09.422B.782. «Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei. Renove Plana, Automobilgintzaren balio-katea bultzatzeko planaren barruan». 212 milioi euro.

Aparteko kreditu hori Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 46. artikulua arabera finantzatuko da.

Errege lege-dekretu hau onetsita, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 10.2 artikuluan aipatzen den baimena ematen da.

Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 58.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, aipatutako bi aurrekontu-aplikazioetan ekitaldi hau amaitzean erregistratzen diren kreditu-gerakinak 2021eko ekitaldiko kredituetan sartu ahal izango dira».

Azken xedapenetako hamahirugarrena. *Eskumen-titulua.*

Lege hau Espainiako Konstituzioaren 149. artikulua 1. apartatuko 7. eta 13. zenbakietan xedatutakoaren babesean ematen da: xedapen horiek eskumen eskusiboak esleitzen dizkiote Estatuari lan-legeriaren arloan, bai eta jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarrien eta koordinazioaren arloan ere.

Azken xedapenetako hamalagarrena. *Indarrean jartzea.*

Lege hau indarrean jarriko da *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean, salbu eta azken xedapenetako lehenengoaren bigarren apartatua, 2021eko urriaren 1ean jarriko baita indarrean; apartatu horren bidez, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Lan-arloko arau-hauste eta zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 40. artikulua aldatzen da.

Horrenbestez,
Lege hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikular zein agintariei.

Madrilen, 2021eko uztailaren 9an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN

ERANSKINA

Zazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren ondasunen zerrenda

	Produktuaren izena	Ondasunaren/produktuaren deskribapena	NC kodea
1.	Gailu medikoak.	Zainketa intentsiboetarako eta azpi-intentsiboetarako arnasgailuak.	ex 9019. 20 00
		Haizagailuak (arnasketa artifizialerako tresnak). Fluxu bereizleak.	ex 9019 20 00 ex 9019 20
		Oxigenoterapiarako beste tresna batzuk, oxigeno dendak barne.	ex 9019 20 00
		Gorputzaz kanpoko mintzaren bidezko oxigenazioa.	ex 9019 20 00
2.	Monitoreak.	Parametro anitzeko monitoreak, eramangarriak barne.	ex 8528 52 91
			ex 8528 52 99
			ex 8528 59 00 ex 8528 52 10
3.	Ponpak.	<ul style="list-style-type: none"> – Kanpo-nutriziorako ponpa peristaltikoak. – Sendagaien infusio-ponpak. – Hurrupatze-ponpak. 	ex 9018 90 50
			ex 9018 90 84
			ex 8413 81 00
		Xurgatze zundak.	ex 9018 90 50
4.	Hodiak.	Hodi endotrakealak.	ex 9018 90 60
		Hodi esterilak.	ex 9019 20 00 ex 3917 21 10etik ex 3917 39 00ra
5.	Kaskoak.	Aireztapen mekaniko ez-inbaditzaileko kaskoak (CPAP/NIV).	ex 9019 20 00
6.	Aireztapen ez-inbaditzaileko maskarak (NIV).	Aireztapen ez-inbaditzaileko aurpegi osoko maskarak eta maskara orononasalak.	ex 9019 20 00
7.	Hurrupatze-sistemak/makinak.	Hurrupatze-sistemak.	ex 9019 20 00
		Hurrupatze-elektrikoko makinak.	ex 9019 20 00 ex 8543 70 90
8.	Hezegailuak.	Hezegailuak.	ex 8415
			ex 8509 80 00
			ex 8479 89 97
9.	Laringoskopiaok.	Laringoskopiaok.	ex 9018 90 20
10.	Hornigai mediko suntsikorak.	<ul style="list-style-type: none"> – Intubazio-kitak. – Guraize laparoskopikoak. 	ex 9018 90
		Xiringak, orratzarekin edo gabe.	ex 9018 31
		Metalezko orratz tubularrak eta josturetarako orratzak.	ex 9018 32
		Orratzak, kateterrak eta kanulak.	ex 9018 39
		Sarbide baskularerako kitak.	ex 9018 90 84

	Produktuaren izena	Ondasunaren/produktuaren deskribapena	NC kodea
11	Monitorizazio-estazioak - Pazienteak monitorizatzeko tresnak – Elektrodiagnostikorako tresnak.	Zainketa intentsiboetarako monitorizazio-estazio zentralak, Pultsu oximetroak.	ex 9018 90 ex 9018 19
		– Pazienteak monitorizatzeko gailuak. – Elektrodiagnostikorako tresnak.	ex 9018 19 10 ex 9018 19 90
12	Ultrasoinu bidezko eskaner eramangarria.	Ultrasoinu bidezko eskaner eramangarria.	ex 9018 12 00
13	Elektrokardiografoak.	Elektrokardiografoak.	ex 9018 11 00
14	Ordenagailu bidezko tomografiarako sistemak/ eskanerrak.	Ordenagailu bidezko tomografiarako sistemak.	ex 9022 12, ex 9022 14 00
15	Maskarak.	– Aurpegirako ehun-maskarak, iragazki ordezkagarriak eta pieza mekanikorik gabe, horren barnean direla ehundu gabeko ehun-materialez egindako maskara kirurgikoak eta erabili eta botatzeko aurpegiko maskarak. – Aurpegiko maskarak, FFP2 eta FFP3 motakoak.	ex 6307 90 10 ex 6307 90 98
		Paperezko maskara kirurgikoak.	ex 4818 90 10 ex 4818 90 90
		Gas-maskarak, agente biologikoetatik babesteko pieza mekanikoak edo iragazki ordezkagarriak dituztenak. Begi-babesa edo aurpegiko ezkutuak dituzten maskarak barne.	ex 9020 00 00
16	Eskularruak.	Plastikozko eskularruak.	ex 3926 20 00
		Gomazko eskularru kirurgikoak.	4015 11 00.
		Gomazko beste eskularru batzuk.	ex 4015 19 00
		Puntuzko eskularruak, plastikoz edo gomaz estaliak edo inpregnatuak.	ex 6116 10
		Puntuzkoak ez diren ehunezko eskularruak.	ex 6216 00
17	Aurpegirako babesak.	– Erabili eta botatzeko aurpegi-babesak eta berrerabilgarriak. – Aurpegi-babesak, plastikozkoak (begiena baino azalera handiagoa estaltzen dutenak).	ex 3926 20 00 ex 3926 90 97
18	Betaurrekoak.	Babes-betaurreko handiak eta txikiak (googleak).	ex 9004 90 10 ex 9004 90 90

	Produktuaren izena	Ondasunaren/produktuaren deskribapena	NC kodea
19	Osoko jantziak. Mantal iragazgaitzak –askotariko motak– hainbat tamaina. Erabilera kirurgiko/medikorako babes-jantziak, ehundu gabeko feltroz edo ehunez eginak, baita inpregnatuak, estaliak, gaineztatuak edo ijeztuak (56.02 edo 56.03. partidetako ehunak) ere.	Erabilera anitzeko arropa (barne daudela eskularruak, mitoiak eta eskuzorroak), goma bulkanizatuzkoa.	ex 4015 90 00
		Jantziak.	ex 3926 20 00
		Arropa eta osagarriak.	ex 4818 50 00
		5903, 5906 edo 5907 partidetako puntuzko ehunez egindako jantziak.	ex 6113 00 10 ex 6113 00 90
		Puntuzko ehunez egindako beste jantzi batzuk.	6114
		Erabilera kirurgikorako/medikorako babes-jantziak, feltroz edo ehundu gabeko oihalez eginak, inpregnatuak edo inpregnatu gabeak, estaliak, gaineztatuak edo ijeztuak (56.02 edo 56.03. partidetako ehunak). Ehundu gabeko materialez egindako jantziak («spun-bonded») barne.	ex 6210 10
		Beste babes-jantzi batzuk, kautxuztatutako edo inpregnatutako, estalitako, gaineztatutako edo ijeztutako ehunez eginak, (59.03, 59.06 edo 59.07. partidetako ehunak).	ex 6210 20 ex 6210 30 ex 6210 40 ex 6210 50
20	Oinetakoen estalkiak/galtzak.	Oinetakoen estalkiak/galtzak.	ex 3926 90 97
			ex 4818 90
			ex 6307 90 98
21	Txanoak.	Txano puntadunak.	ex 6505 00 30
		Txanoak eta bururako beste babesgarri batzuk, eta edozein materialezko sareak.	ex 6505 00 90
		Gainerako txanoak eta bururako babesgarriak, forratuta/ neurrikoak edo ez.	ex 6506
22	Termometroa.	Zuzeneko irakurketarako likidodun termometroak. Beira barruan merkurioa daramaten termometro kliniko estandarrak barne hartzen ditu.	ex 9025 11 20 ex 9025 11 80
		Termometro digitalak, edo termometro infragorriak, tenperatura kopetan neurtzekoak.	ex 9025 19 00
23	Eskuak garbitzeko xaboa.	Eskuak garbitzeko xaboa eta prestatutako produktu organiko tentsioaktiboak (apain-mahaiko xaboa).	ex 3401 11 00 ex 3401 19 00
		Xaboa eta produktu organiko tentsioaktiboak. Xaboa beste forma batzuetan.	ex 3401 20 10 ex 3401 20 90
		Agente organiko tentsioaktiboak (xaboiak bestelakoak) – Katioi-agentek.	ex 3402 12
		Azala garbitzeko produktu eta prestakin organiko tentsioaktiboak, likido edo krema itxurakoak eta txikizkako salmentarako prestatuak, xaboa dutenak edo ez.	ex 3401 30 00

	Produktuaren izena	Ondasunaren/produktuaren deskribapena	NC kodea
24	Eskuen desinfektatzailearen banagailuak, paretan jartzekoak.	Eskuen desinfektatzailearen banagailuak, paretan jartzekoak.	ex 8479 89 97
25	Disoluzio hidroalkoholikoa litrotan.	2207 10: desnaturalizatu gabe, % 80ko alkohol etilikoko bolumena edo gehiago dutenak.	ex 2207 10 00
		2207 20: desnaturalizatu, kontzentrazioa edozein dela ere.	ex 2207 20 00
		2208 90: desnaturalizatu gabe, alkohol etilikoa bolumenaren % 80 baino gutxiago denean.	ex 2208 90 91 ex 2208 90 99
26	Hidrogeno peroxidoa % 3an, litrotan. Hidrogeno peroxidoa, prestakin desinfektatzaileetan gaineratua gainazalak garbitzeko.	Hidrogeno peroxidoa, urearekin solidotua edo ez.	ex 2847 00 00
		Hidrogeno peroxidoa soltean.	
		Eskuen desinfektatzailea. Beste prestakin desinfektatzaile batzuk.	ex 3808 94
27	Larrialdiko garraiagailuak.	Desgaitasuna duten pertsonentzako garraioa (gurpil-aulkiak).	ex 8713
		Ospitaleetan edo kliniketan pazienteak eramateko ohatilak eta orgatxoak.	ex 9402 90 00
28	ARN erauzgailuak.	ARN erauzgailuak.	9027 80
29	COVID-19aren proba-kitak / Proba diagnostikoetan erabilitako tresnak eta gailuak.	– Koronabirusaren proba diagnostikorako kitak. – Immunologia-erreakzioetan oinarritutako diagnostiko-erreaktiboak. – Isipuen ekipoak eta birusa garraiatzeko ingurunea.	ex 3002 13 00 ex 3002 14 00 ex 3002 15 00 ex 3002 90 90 ex 3821 00
		Diagnostiko-erreaktiboak, polimerasaren kate-erreakzioan oinarrituta (PCR), azido nukleikoaren proba.	ex 3822 00 00
		Laborategi klinikoetan in vitro diagnostikorako erabiltzen den tresneria.	ex 9027 80 80
		Laginetarako kitak.	ex 9018 90 ex 9027 80
30	Isipuak.	Guata, gaza, bendak, kotoi-txotxak eta antzeko artikulua.	ex 3005 90 10
			ex 3005 90 99
31	Kanpaina-ospitaleak instalatzeko materiala.	Ospitaleetako oheak.	ex 9402 90 00
		Karpak/kanpadendak.	ex 6306 22 00, ex 6306 29 00
		Karpak/plastikozko kanpadendak.	ex 3926 90 97

	Produktuaren izena	Ondasunaren/produktuaren deskribapena	NC kodea
32	Botikak.	<ul style="list-style-type: none"> – Hidrogeno peroxidoa, medikamentu gisa aurkeztuta. Parazetamola. – Hidroxiklorokina/klorokina. – Lopinavir/Ritonavir – Remdesivir. – Tocilizumab. – Ruxolitinib. 	<ul style="list-style-type: none"> ex 3003 90 00 ex 3004 90 00 ex 2924 29 70 ex 2933 49 90 ex 3003 60 00 ex 3004 60 00 ex 2933 59 95 ex 2934 10 00 ex 2934 99 90 ex 3002 13 00 ex 3002 14 00 ex 3002 15 00 ex 2933 59 95
33	Esterilizatzaile medikoak, kirurgikoak edo laborategikoak.	Esterilizatzaile medikoak, kirurgikoak edo laborategikoak.	<ul style="list-style-type: none"> ex 8419 20 00 ex 8419 90 15
34	1- propanola (alkohol propilikoa) eta 2 – propanola (alkohol isopropilikoa).	1- propanola (alkohol propilikoa) eta 2 – propanola (alkohol isopropilikoa).	ex 2905 12 00
35	Eterrak, eter-alkoholak, eter fenolak, eter-alkohol-fenolak, alkohol peroxidoak, beste peroxido batzuk, zetona peroxidoak.	Eterrak, eter-alkoholak, eter fenolak, eter-alkohol-fenolak, alkohol peroxidoak, beste peroxido batzuk, zetona peroxidoak.	ex 2909
36	Azido formikoa.	Azido formikoa (eta gatz eratorriak).	<ul style="list-style-type: none"> ex 2915 11 00 ex 2915 12 00
37	Azido salzilikoa.	Azido salzilikoa eta gatz eratorriak.	ex 2918 21 00
38	Erabilera bakarreko oihalak, 5603. partidako ehunez eginak, prozedura kirurgikoetan erabiltzen direnen motakoak.	Erabilera bakarreko oihalak, 5603. partidako ehunez eginak, prozedura kirurgikoetan erabiltzen direnen motakoak.	6307 90 92
39	Ehundu gabeko oihalak, inpregnatuak, estaliak, gaineztatuak edo ijestuak izan edo ez.	Ehundu gabeko oihalak, inpregnatuak, estaliak, gaineztatuak edo ijestuak izan edo ez.	<ul style="list-style-type: none"> ex 5603 11 10etik ex 5603 94 90era
40	Erabilera kirurgikoko, medikoko edo higienikoko artikulak, txikizkako salmentarako ez direnak.	Paperezko ohe-estalkiak.	ex 4818 90
41	Laborategiko beirateria, beirateria higienikoa edo farmazeutikoa.	Laborategiko beirateria, beirateri higienikoa edo farmazeutikoa, kalibratuta edo graduatuta egon zein ez egon.	<ul style="list-style-type: none"> ex 7017 10 00 ex 7017 20 00 ex 7017 90 00
42	Fluximetroa, Thorpe hodiko fluxu-neurgailua oxigenoa emateko, 0-15 L/min.	Thorpe hodiko fluxu-neurgailuak osagai hauek dauzka: sarrera-eta irteera-atakak, erregulagailua, balbula eta neurketa-hodi koniko gardena. Hainbat gas medikoren iturriekin konektatzeko balio du, hala nola sistema zentralizatu batekin, zilindroekin (bonbonak), kontzentragailuekin edo konpresoreekin. Fluximetro (fluxu-neurgailu) bertsioak, arrunta (absolutua, konpentsatu gabea) eta presio konpentsatukoa, fluxu-maila espezifikotarako egokiak.	<ul style="list-style-type: none"> ex 9026 80 20 ex 9026 80 80 ex 9026 10 21 ex 9026 10 81

	Produktuaren izena	Ondasunaren/produktuaren deskribapena	NC kodea
43	CO2aren detektagailu kolorimetricoa, arnasa botatzekoa.	Haurren eta helduen hodi endotrakealarekin bateragarria den tamaina. Behin bakarrik erabiltzekoa.	ex 9027 80
44	X izpien filma edo plakak.	Laua, sentsibilizatua eta inpresionatu gabea.	ex 3701 10 00
		Biribilkietan. Sentsibilizatua eta inpresionatu gabea.	ex 3702 10 00